

ASTELEHENKO

Goienkaria

2008ko irailaren 29a > Astelehena > VI. urtea > 204. zenbakia > Euro 1

www.goiena.net

"Emakumeok,
oro har, joera
dugu besteei
gure buruari
baino balio
handiagoa
emateko"

Pepa Bojo
Psikologoa > 9



ARRASATE
Maritxu Kajoren atarian,
Nobetaixoko omenaldia > 04

DEBAGOIENA
Baserriko produktuak
Aretxabaletan protagonista > 09

SASKIBALOIA
Fernando Raso Eskoriatzako
entrenatzaileari elkarriketa > 20

LEHIAKETA
Argazki Lehiaaketa irabazteko
'hautagai' berriak > 22-24

Danbaka lehiaketako talde aukeratuak

Urriaren 17tik aurrera
Elgetako Espaloia
antzokian joko duten
23 taldeen izenak auke-
ratu ditu epaimahaia
dagoeneko. 24. taldea
publikoak aukeratuko
du *danbaka.com* web-
gunean. > 25-27

DANBAKA))))

KULTURA > IZENDAPENA

Patxi Uribarren, euskaltzain

Uribarrenek Henrike
Knörr zenaren lekua
beteko du
Euskaltzaindia > 05

ARANTZAZU > BISITA

Kazetari txinatarrak Gomiztegin

Gaztaren gaineko
xehetasunak jaso
zituzten ostiralean > 05

AURKIBIDEA

Debagoiena > 04-05
Elkarriketa > 06
Iritzia > 07-08
Herriak > 09-14
Kirola > 15-22
Kultura > 23-27
Sailkatuak > 28
Irrati-Telebista eta
Hitzorduak > 29
Berri-zakua > 30-31
Azkena > 32

GIZARTEA > GORREN ALDEKO ELKARTEEN ESKUTIK

Pertsona gorren eguna ospatu zuten zapatuan Bergaran

BERGARA Gorren nazioarteko
eguna zen zapatuan;
antolatzailak pozik Bergaran
jasotako erantzunarekin

ALDARRIKAPEN EGUNA
Egunean 24 orduz hizkuntzaren
interpreteak izatea eskatu
zuten antolatzailiek

DEBAGOIENA 40 urte
betetzean dago Aransgi
Bergaran; ibarrean gorrak diren
200 lagun inguru daude > 03



TXAPELDUN Joxe Mari Jauregi arabarrak Lourdes Idoiagarengandik jaso zuen txapela eta trofeoa, Santa Lutzian, atzo.

JOSETXO ARANTZABAL

Joxe Mari Jauregi eta 'Bizkor' txapeldun Oñatin

IKUSMIN HANDIA OÑATIN ATZO. HAMABI PARTAIDE IZAN ZIREN NAZIOARTEKO ARTZAI TXAKUR TXAPELKETAN > 21

FUTBOLA > BTLS-BERGARA

Berdinketa lehen erregional mailako Bergarako derbian

Lehen erregional mailako BTLS
eta Bergara futbol taldeek bana
berdindu zuten atzo, Ipintza fut-
bol zelaiko inaugurazio ofizialean.
Agurne Barruso Bergarako
alkateak egin zuen ohorezko
sakea partiduaren atarian. Juan
Luis Larrea Gipuzkoako Futbol
Federazioko presidenteak ere izan
zen atzoko partiduan.

Derbiari dagokionez, jende
asko batu zen Ipintza Bergarako
bi taldeen arteko lehenbiziko
derbian. Partiduak ikusmina piz-
tu zuen zaleen artean. Lehen zatia
husnako berdinketarekin amai-
tu zen. Ondoren, Bergara aurre-
ratu zen markagailuan baina
BTLSek puntu batia eutsi zion par-
tiduaren amaieran > 16

irabazleak **IRABAZLEAK** irabazleak **IRABAZLEAK** Kirabaz
leak **IRABAZLEAK** irabazleak **IRABAZLEAK** Kirabazleak **IRABAZLEAK**
RABAZLEAK irabazleak **IRABAZLEAK** irabazleak **IRABAZLEAK** Kirabaz
AZLEAK irabazleak **IRABAZLEAK** Kirabazleak **IRABAZLEAK**
EAK irabazleak **IRABAZLEAK** irabazleak **IRABAZLEAK**
irabazleak **IRABAZLEAK** irabazleak **IRABAZLEAK** Kirabaz
leak **IRABAZLEAK** Kirabazleak **IRABAZLEAK** irabazleak **IRABAZLEAK**
RABAZLEAK irabazleak **IRABAZLEAK**

> Ikus 5. orria



Negu honetan, ahaztu hotza.

ESKAINTZA
PAREGABEA

Naturgas energiarekin, gas naturalez gozatuko duzu etxean.

Orain, erosotasunik handienaz gozatzea inoiz baino errazagoa da. Izan ere, fabrikatzaileekin eta gas-instalatzaleekin lortutako akordioari esker, guk gas naturalerako instalazio osoa egingo dizugu, eta zuk orain arte sekula inork eskaini ez dizkizun baldintzak izango dituzu.

Egundoko prezioan:
3.300€
(BEZ kanpo).



KREDIGAS
finantziazoa berezia,
instalazioa hileko kuota erosotan
finantzatzeko.



570€
ere emango dizugu

Promozio honek 08/12/31ra bitartean iraungo du.

Finantziazoa berezi honen interes-tasa 2008rako %5,25ekoia izango da (Credigas). Gaueko tarifa baduzu, edo 65 urtez gorakoa bazara, 570 € jasoko duzu; halakorik ez baduzu, 270 € jasoko duzu. Prezia gutxi gorabeherakoa da, barruko instalazioa egiteko, kondentsazio-galdara (markaren arabera) eta 6 erradiadore (45 elementu) jartzeko. Promozio estandarraren gaineko edozein aldaketa, aparteko aurrekontua izango du. Promozio honetaz balitzeko, Naturgas Energia Comercializadora, SAUrekin horikuntza alta egin beharra dago.

902 123 456 Telefono Urdina
www.naturgasenergia.com



**naturgas
energia**

GIZARTEA > PERTSONA GORREN NAZIOARTEKO EGUNA

Komunikazio oztopoak egun batez desagertu dira

BERGARAN Zapatauan gorren eguna zen eta horretarako, sentsibilizazio jaialdia egin zuten Bergarako plazan

ANTOLATZAILEAK Pertsona gorren alde Gipuzkoan lan egiten duten elkarteeek antolatu zuten jaialdia

HARRERA ONA Goizean 500 lagun inguru pasa ziren San Martin plazatik, antolatzaileen arabera

ALDARRIKAPENA Egunean 24 orduz zeinuen hizkuntzaren interpreteak izatea eskatu zuten, besteak beste

MIRIAN BITERI > BERGARA
“Autobidean ezbeharren bat badugu, ezin dugu larrialdi zutonetik abisua eman, telefono bat delako. Kamara bat balu...” edo “Nola jakingo dut nire haurra negarrez ari dela sukaldean ari naizen bitartean? Interkomunikagailua behar dut, haurraren negarra argi edo mugimenduko seinale bihurtuko dena”. Entzuleendako ohikoak eta samurra diren egoeren aurrean, pertsona gorrek dituzten oztopoaren adierazle garbiak dira aurreko adibideak.

Esandakoak eta antzeko egoerak azaltzen zituzten panelak ikusi zituzten zapatu goizean Bergarako San Martin plazan izan ziren. Pertsona gorren alde lan egiten duten elkarteeek komunitate horren nazioarteko eguna antolatu zuten eta Bergara aukeratu zuten aurtengo sentsibilizazio jaialdia egiteko.

ZEINUEN HIZKUNTZA NAGUSIA
Askotariko ekimenen bidez gorren kultura ezagutzen eman zuten egun osoan. Esan bezala, goizean San Martin plazan egon ziren. Zeinuen hizkuntza izan zen protagonista nagusia. Etxeko txikienek udaletxe parean jarritako puzgarrietan jolasten zuten bitartean, nagusitxoagoek tailerretan parte hartzen zuten, txapak egiten edo margozen.

Helduek, bitartean, zeinu hizkuntzaren bidez bakoitzaren bizitzaren berri ematen zioten ondokoari. Ipuin kontalaria ere izan zen. Hitz bat bera ere esan barik eta esku, keinu eta panpiñen bidez, hainbat ipuin kontatu zizkien haurrei. Mimo bat ere izan zen plazan, han bildutako-en artean giroa alaitzen.

AGIRIA
Baina, esan bezala, dena ez zen jaia izan San Martin plazan. Aldarrikapenek ere bere tokia izan zuten. Hala, eguerdian, agiria irakurri zuten. Horretan gogorarazi zuten, aurten, inoiz baino motibo gehiago dituztela pertsona gorren nazioarteko eguna antolatzeko. Izan ere, joan zen urtean Espainiako Kongresuak aho batez onartu zuen-eta entzumen arazoak dituzten eta gor-itsuen ahozko komunikazioari laguntzeko neurriak arautzen dituen legea.



Kontalaria umeei ipuinak zeinuen hizkuntzaren bidez kontatzen zapatu goizean, Bergarako San Martin plazan.

JOSETXO ARANTZABAL

Hori dela eta, Gipuzkoako Aldundiari eta udalei dei egin zieten, esandako legeak jasotzen dituen neurriak har ditzaten: “Gure kolektiboa osatzen duten pertsonen eguneroko bizitza errazagoa izan dadin”. Hala, erakunde publikoek egunean 24 orduz, Zeinuen Hizkuntzaren Interpretteen Euskal Zerbitzua bultzatu

eta finantza dezaten eta langileei prestakuntza eta komunikazio estrategiak eskaini diezazkienetan eskatu zieten.

Egunoroko bizitzan, komunikazio oztopoak “errealitya” direla nabarmendu zuten: “Zerbitzu publikoak berdintasunez erabiltzeko arazo handiak izaten jarraitzen dugu”. Aipatu zuten,

esaterako, ikasle gorrei egokitu-tako hezkuntzak hutsuneak dituela; lan munduan eta etengabeko prestakuntzan sartzeko muga handiak dituztela; eta medi-kuekin, psikologoekin edo gizarte-laguntzaileekin komunikatzeko oztopo handiak dituztela. Agirian ziotenez, komunikazio oztopoek entzule komunitatetik

“aldentzen eta desberdintzen” dituzte: “Ezin ditugu onartu komunikazio oztopoek gu gizarte honetatik baztertzea, gu ere gizartearen zati gara-eta”.

Agiria irakurri ostean, Bergarako alkate Agurne Barrusori oroigarria eman zioten, jaialdirako Udalak emandako laguntzagatik. Jarraian, antzerkia izan zen. Bazkaldu ostean, berriz, Udal Pilotalekuaren elkartu zuten. Fubito txapelketa jokatu zuten han pertsona gorrek.

Debagoienean gorrak diren 200 pertsona inguru daude gaur egun

Aransgi, Gipuzkoako Pertsona Gorren Familien Elkarteak, zapatuko jaialdiaren antolatzaileetako bat izan zen, GGErekin eta Gainditzenekin batera. Aransgi guraso talde batek sortu zuen, euren seme-alaba gorrei beharrezko arreta emateko. Bergarako gunea 40 urte betetzean dago eta hasieran eskolak emateko sortu bazen ere, egun pertsona gorrei eta euren familieei arreta integrala eskaintzen zaie Bonifacio Laskurain kaleko egoitzan. Hango zuzendari Iñaki Madinabeitiak eskaintzen dituzten zerbitzu batzuk aipatu ditu: hezkuntzarekin lotutakoak, lan-munduari begirakoak, medikoak, administratiboak, teknikoak eta sozializazio jarduerak, besteak beste.

Hezkuntzaren arloak garantzi handia du. Eskola garaien daudenekin, sistema mistoa jarraitzen dute. Egun bailarako 25 ume inguru dituzte, hamaika ikastetxeetan banatuta. Bi tokitan jasotzen dituzte eskolak: ordu batzuk norberaren ikastetxeetan, entzuleekin batera; eta beste batzuk elkartearren zentroan, arazo bera dutenekin. Madinabeitiaren esanetan, “zerbitzua pertsonalizatuta da, norberaren beharretara egokituta”.

Ikastaroak ere antolatzen dituzte urtero, urtarriletik maiatzera, gorren inguruan daudenendako. Madinabeitiak azaldu du, azkenik, Debagoienean 200 gor inguru egon daitezkeela: “Gazteetatik gorrak direnak dira horiek, baina uste baino gehiago daude”.

PLAZATIK 500 INGURU
Pertsona gorren alde Gipuzkoan lan egiten duten elkarteeek gus-tura geratu ziren jaialdiarekin. Mercedes Iñarra bozeramailearen esanetan, 500 lagun inguru pasa ziren plazatik, hasiera baten aurreikusitakoa baino gehiago. Bizkaik eta Gipuzkoako beste tokie batzuetatik jende asko etorri zela esan zuen. Bergararrek ere interesa azaldu zuten. Egun batez komunikazio arazoak desagertu ziren zapatuau.

OSPAKIZUNAK > NOBENAIXOKO EKITALDIAK

Herriko dantza taldeen sortzaileak, Nobenaixoko protagonista nagusiak

Marga Mercader eta Ixiar eta Xeli Arregik “inbutu preziatuak” jaso zituzten herrigintzaren alde egindako lan guztiarengatik

TXOMIN MADINA > ARRASATE
2008ko Maritxu Kajoirako ez da ezer geratzen, eta datorren egubakoitzera begira herriko giroa berotzen hasteko, urtero bezala egun bakarra irauten duen Nobenaixoko berezia antolatu zuen Maritxutako Komisiñuek ostiralean.

Gazte zein nagusi, asko eta asko izan ziren giro freskoari aurre eginaz plazan dagoen Maritxu Kajoiren irudiaren azpian elkartu ziren arrasatearrak. Komisiñoko kideek, aurretik agindu zuten bezala, Arabako errioxar ardoa eta gazta banatu zituzten doan bertaratu ziren guztiendako.



Hunkituta jaso zituzten omenduek ohorezko inbutuak.

JOSETXO ARANTZABAL

DANTZA IRAKASLEEI OMENALDIA
Baina zalanztzik gabe ekitaldi-ko unerik hunkigarrienak eta beroenak Marga Mercaderri eta

Ixiar eta Xeli Agirre ahizpe egin-dako omenaldian bizi izan ziren. Euskal dantzen irakasleak hiruk-ak ere, bere garaian herriko

dantza taldeen bultzatzaiak izan ziren: Marga Mercaderrek Lore Gazteak taldea sortu zuen 1960ko hamarkadan, eta Agirre

ahizpak Txikitxu, gero Arrostatitz bihurtu zen dantza taldearen sustatzaiak izan ziren 1970ko hamarkadan. Maritxutako Komisiñokoek azaldu zute-nez, herrigintzaren eta kulturgintzaren alde egindako lanagatik omendu gura izan zituzten hiru emakumeak. Omenduetako bakoitzak, “inbutu preziatu” jaso zuen eta horren ostein, Margaren alaba Nereak eta Xeli eta Ixiarren iloba Gorkak ohorezko aurreeskua dantzatu zieten.

Ixiar Agirre oso pozik zegoen omenaldiaren ostein, azaldu zuenez, ez zuen-eta halakorik espero. Argi utzi gura izan zuen, bai lehen eta baita orain ere dantza taldeen inguruan mugitzen diren guztien laguntza gabe, euren lanak ezer gutxi balioko zukeela, eta horregatik, eskerrak eman gura izan zizkien guztie.

MIRARIA, SEKRETU

Komisiñokuei Maritxu Kajoiren aurengo mirariari buruz galde-tuta, ez zuten ezer aurreratu gura izan baina esan zuten urteroko miraririk ez dela faltako.

BISITA > TXINATARRAK GOMIZTEGIN

Txinako kazetari talde batek Gomiztegi bisitatu du

Gastronomiari buruzko argitalpenetan lan egiten dute, eta bertan egiten den gaztaren inguruko xehetasunak jaso dituzte Artzain Eskolan.

TXOMIN MADINA > OÑATI
Tzinako hainbat aldizkari gastronomikotan dihardutenean kazetari talde baten bisita jaso zuten pasa den egubakoitzean Arantzazun dagoen Gomiztegiko Artzain Eskolan.

Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza, Arrantza eta Elikagaien departamentuak gonbidatutu etorri dira Euskal Herrira, Txinara bueltan han oraindik ere ezeza-

gunak diren euskal produktuen berri emateko. Jaurlaritzako ordezkarien esanetan, helburua da epe ertain-luzera Txinako merkatu zabalduna ahal izatea.

“GAZTA ALAIA”

Bisitan, pausuz pausu bertako gazta nola egiten den ezagutzeko aukera izan zuten txinatarrek: ardiak nola bizi diren, esnea nola jaisten zaien, gazta nola egiten

den... Bertako hainbat gazta mota ere dastatu zuten.

Hong Kongeko Chun Wai Chanelek adierazi zuenez, gazta egiteko modua ez da munduko beste toki batzueta erabiltzen duten-tek oso ezberdina, baina zera gehitu zuen: “Ardiak hazteko zelai zoragarri hauetan, haize freskoan, mendiko giroan ardiak pozik bizi dira, esne alaia ematen duten, eta gazta ere halakoa da”.

Artzain Eskolaz gain, Euskal Herrira egindako bisitan Errioxako ardoa, Astigarragako sagardoa eta Zumaiako kontserba lantegiak ezagutzeko aukera ere izan dute, besteak beste.



Idiazabalgo gazta dastatzeko aukera ere izan dute txinatarrek.

TXOMIN MADINA

LETAMENDI
1923~TIK TXANTXIKUARRAK JAZTEN

KULTURA > EUSKALTZAINDIAREN IZENDAPENA

Patxi Uribarren aramaioarra, euskaltzain oso berria


Henrike Knörr zenaren aulkia beteko du Euskaltzaindian; egubakoitzeko bozketa Blanca Urgelli nagusitu zitzaion

E. M. > BERGARA

Patxi Uribarren aramaioarrak Henrike Knörr zenaren aulkia beteko du Euskaltzaindian. Egubakoitzean eman zuten izendapenaren berri. Patxi Uribarren Leturiaga karmeldarra 1942an jaio zen Aramaion; Filosofia eta Letretan eta Teologian lizentziaduna da eta 1971n euskaltzain urgazle izendatu zuten, Aramaion bertan. Bizkaiko Diputazioan itzultziale lanetan jardun zuen 1983tik joan zen urtera arte. Euskararen inguruko lanen artean, besteak beste, Aramaioko toponimiari buruz egindako tesia egina du.

LEXIKOLOGIAN LANEAN

Euskal lexikologiaren azterketa arduratzetan den Bostak Bat elkarteko sortzaileetariko bat izan zen Uribarren eta Santutxuko gau-eskoletako koordinatzaile hamabi urtez jardun zuen. 1976an Deustuko Irakasle Eskolan sartu zen, euskararen irakaskuntza antolatuz. Erretiratutako-



Patxi Uribarren.

GOIENKARIA

an 3000 hiztegia osatzeari ekin zion. Esan bezala, Henrike Knörrrek utzitako lekua beteko du Uribarrenet. Egubakoitzeko bozketan Blanca Urgellek baino boto gehiago jaso zituen. Uribarrenen alde egin zutenak hauiek izan genituen: Jose Luis Lizundia, Andoni Sagarna, Sagario Aleman eta Jean-Louis Davant. Urgelek, berri, Patxi Goenagaren, Joseba Lakarraren eta Miren Lourdes Oñederraren babesja jaso zuen. Uribarrenen hitzetan, "oso gustura nago. Knörr plazagizonaren, jendaurrean hitz egiteko balio zuen, baina nik nahiago dut ikerketa lana. Lexikologian, euskalkien azterketan eta horrelakoetan jardungo dut".

EGURALDIA

Euri gutxi eta temperatura epelak

Pello Zabalaren arabera, udazken 'baketsua' izango da aurtengoa

E.M. > BERGARA

Pello Zabala frantziskotar ezagunak egindako iragarpeneren arabera, "udazken bake-tsuia izango dugu eguraldiari dagokionez. Aspaldian hego-ekialdeko eta ipar-ekialdeko haizeak sartu zaizkigu eta hai-ze hain xumeak izanda, euri gutxi izango dugu udazkenean". Irailaren 22an sartu ginen udazkenean eta hilaren 24an kontratenporak izan ziren; tenporen aste amaierako eguztenean izaten dira kontratenporak, hain zuzen. Pello Zabalak zera diosku: "hilberria tokatzen den astean eguraldia aldakorragoa izango da, baina bestela ez dugu euri askorik izango udazkenean eta temperaturak nahiko epe-lak izango dira". Hurrengo temporak abenduaren 17ko astean izango dira.

1978an hasi zen Pello Zabala eguraldiko kontuekin. Urriaren 6tik aurrera, GOITBn azalduko da, egune-ro, eguraldiaren berri ematen.

BERGARA > EZ OHIKO OSOKO BILKURA

Legez kanporatzeak direla eta, EAJren mozioa onartu zuten

Bergarako udalbatzak EAJk aurkeztutako mozio alternatiboa onartu zuen ostiralean, Aralarren eta EAren babesarekin

GOIENKARIA > BERGARA
EAJ eta EHAK alderdien legez kanporatzearen aurrean, Bergarako udalbatzak EAJk aurkeztutako mozioa onartu zuen egubakoitzean. Maite Guridi euskara zinegotziak ez ohiko osoko bilkura eramandako mozioa zela eta, EAJk mozio alternatiboa aurkeztu zuen ostiralean. Aipatutako mozioa EAJ, EA eta Aralar alderdien baiezko botoekin onartu zuten. Agurne Barruso alkatea, Roberto Martinez, Mikel Elkoreberezibar, Aitor Goiti eta Guridia berri abstentu egin ziren. PSE-EEko bi ordezkariek ez ziren azaldu bilkurara.

Onartutako mozioan, besteak beste, zera jasotzen da: "EHAK, EAE, Gestorak eta Askatasunari ilegalizazio epaiak, politikaren partehartze eskubidearen aurkako dira, eta estatu espanyiarraren botere estamentuen ahuleziaren adierazgarri. Oinarritzko eskubideei etengabeko zapalketak ez dira inolaz ere lagungarri gure Herriak bizi duen soluzio bilaketako. Soluzioa baitator batetik, oinarritzko eskubide ororen zapalketa gaitzestetik eta bestetik, gure Herriak bizi duen gatzazka politikoa itxiko duen akordioa lortzeetik, beti ere gure Herriak bere etorkizun politikoa duen eskubide demokratikoa oinarri hartuta. Erakunde politiko ilegalizazio prozesuek eten egiten dituzte oinarritzko eskubide diren ideologia, adierazpen, elkartze eta parte-hartze aldarrikapen demokratikoen (...). Indar eta adierazpen politiko orok du Euskal Herriko erakunde guztietatik ekimen sozio politikoetan parte hartzeko eskubidea. (...) Berretsi nahi dugu

oraingoan ere azken udal hautes-kudeetan talde politiko bakoi-tzak lortutako ordezkaritzia errespetatzearen aldeko gure lana".

EZTABADA

Mozio alternatiboa onartuta, ez zen Guridirena aztertzearik izan. Haren eta beste lau zinegotziren kamisetetan zera jartzen zuen: *Salbuespen egoerari stop!* Guridik eta Barruso alkateak EAJren aurkako hitzak izan zituzten: "Akordio politikoa baino, marko demo-kratikoa da behar duguna. Demo-kraziaren faltan gaudela nabarmena da", adierazi zuen alkateak. Era berean, koherentzia eskatu zion EAJri onartutako mozioan jasotako betetzeko: "Paperean akordio batzuk har-tea gauza erraza da, baina bete egin behar da esandako". EAJk Rafael Amasorrain zinegotziak zera gogoratu zuen: beti ere legez kanporatzearen aurka egon direla. Osoko bilkura nahiko istilutsua izan zen; EAJko zinegotziak aurkako irainak entzun ziren.

ASTELEHENKO
Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa

Harpidedunen txokoa Iraileko zozketa

ZORIONAK!

ZU IZAN ZARA IRABAZLE

AQUARIUM-ERAKO SARRERAK



Irabazlea:

IDURRE URIBARREN HERRASTI (Aretxabaleta)

KAMISETA+POLTSAA

skunkfunk



Irabazlea:

ARRASATEKO UDAL EUSKALTEGIA

CD-IRRATIA _STEREO

EROSKI
zurekin



Irabazlea:

HERIBERTO ZUBIA URIBEETXEERRIA (Arrasate)

BRUESA PARTIDUETARAKO SARRERAK



Bruesa-Tau. Irabazlea:

Felix Gainzarain (Arrasate)

Bruesa-Real Madrid. Irabazlea:

Inigo Gainzarain (Arrasate)

SARI NAGUSIKO IRABAZLEA:

NEKANE GABILONDO UGARTE
(Bergara)

ARBELAITZ JATETXEAN
BI PERTSONANDAKO AFARIA

Arbelaitz
ARBELAITZ • DONOSTIA

Autoestimuaren gaineko ikastaroa egiten dihardute hainbat emakumek Bergaran. Pepa Bojo

Zarautzen bizi den psikologo eta psikoterapeuta valentziarra dute gidari. Konsultako lanaz

gain, taldekin jarduten du, askotan emakumeen taldekin. Izan ere, emakumeon egoera-

tik, emakumeon lekutik aztertzen dituzte gaiak, besteak beste autoestimuarena.

Pepa Bojo > Psikologoa eta psikoterapeuta

"Norbere buruarekiko konfiantza izatea da autoestimu onaren gakoa"

IRATI AGIRREAZALDEGI > BERGARA
Bi taldetan 30 emakumetik gora dihardute Bergaran autoestimuaren gaineko ikastaroan. Energia eta indar handiz eta parte hartzeko gogo handiarekin hasi direla jakinarazi digu Pepa Bojo psikologo eta ikastaroaren arduradunak.

Autoestimua da ikastaroaren ardatza. Zer erakutsiko diezu emakumeei?

Ikusiko dugu nola ulertzen dugun autoestimuaren gaia eta nola landu eta indartu dezakegun autoestimua. Izan ere, pertsonen oinarrietako bat da ondo sentitzeko psikikoki ez ezik baita osasunez eta fisikoki ere, norbere bizimoduan funtzionatzeko, harremanetan... Hau da, lortu nahi dugu norbere buruarekiko harremana ona izatea eta hortik abiatuta gainontzeko guztiak hobeto funtzionatzea. Beti ere kontuan hartuta ez dagoela erreza zehatzik. Etengabeko gogoeita jarraia da gurea, norberak iku si behar du bere eguneroako nola bizi duen, nola alda daitekeen...

Zergatik emakumeendako bakarrik?

Denoi ondo etorriko litzaigu ke ikastaro bat egitea norbere buruarekiko harremana lantze ko. Baino emakumeekin bakarrak lan egiteak laguntzen du gogoeta egiten emakumeak bizi dituen baldintza sozialen gainean. Sexu bakarrarekin lan egitean errazagoa da antzematen genero baldintzatzaleak.

Zer dela eta egoten da hainbes te arazo autoestimuarekin?

Ustez gizarte oparo batean bizi gara, denetarik dugu, ekintza asko, baina galtzen dihardugu norbere baloreetan heztekoko kontua, kanpoan gauzak lortzeari begira bizi garela dirudi. Hortaz, norbere buruarekiko konfiantza sendotu gabe daukagu heziketa ez delako horretan oinarritzen, kanpoko gauzeten baizik. Bestalde, emakumeak historian barrena gizartean bete dituen paperak ez dira behar beste aintzat hartu eta horrek ere eragina izan du emakumeon autoestimuan.

Gurean maizago gertatzen dira beste toki batzuetan baino?

Ez, arazoa orokorra da. Gainera, autoestimua oso aldakorra da, bizitza bera bezala. Norberak bizi dituen egoerek eragina dute norbere buruarekiko harremanean, konfiantzan.



Pepa Bojo psikologoak Bergaran jardungo du abendura bitartean bi taldekin autoestimuaren gaineko saioak egiten.

AINARA LOZANO

Zein litzateke autoestimu on batendako oinarria?

Norberak bere buruari buruz duen ustea ahalik eta positiboa da, norbere buruarekiko konfiantza izatea da autoestimu ona izateko gakoa. Izango dira zaitasunak, krisi uneak... baina duintasuna ez genuke zalantzaz ipini behar.

Beharrezkoak dira gaur egun horrelako ikastaroak?

Beharrezkoak ez dakin, baina gomendagarriak bai. Horrelako ikastaroak pentsatzeko, hausnartzeko, besteekin gogoetak partekatzeko guneak dira, gaizki egiten duguna ikusteko eta aldatzeko bideak bilatzeko tokiak. Jendearekin egotea, kontatzea... oso interesgarria da eta jendea asko animatzen du. Esaterako, antzematen da nola konparazioen arabera jokatzen dugun askotan modu desegokian eta jokabide horiek berrikusi behar genituzke. Bestalde, emakume askok mendean egoten ikasi du emakume den aldetik eta sainatu behar dugu batak besteari lagunduz jokabide horiek aldatzen.

Zein aholku ematen diezu autoestimua hobetzeko?

Esaten diet beste begi batzuekin begiratzen ikasi behar dugula. Beharbada ikasi dute edo era kutsi diete eurek egindakoak, etxeko lanetan jarduteak, esaterako, ez duela aparteko baliorik. Hortaz, gizartea ezarritako arauen gainetik gure burua baloratzen erakutsi nahi diet.

Zein balio ematen diote emakumeek euren buruari?

Emakumeok, oro har, joera dugu besteei gure buruari baino balio handiagoa emateko, besteen beharrak gureen gainetik ipintzeko. Emakumeoi askotan erakutsi digute maitatuak izateko besteekin arduratu behar dugula, hortaz, gure burua aintzat hartzen dugu bakarrik besteek eskatutakoa betetzen dugunean.

Autoestimua itxuraren ala iza eraren baitakoa da?

Fisikoki eta mentalki zaintza baliabide onak izan daitezke autoestimua lantzeko. Benetan nahi duguna, zaintzen dugu eta norbere burua zaintza seinale ona da.

Zer da autoestimua galarazten edo jaisten duena?

Heziketa ereduek, gizartekoek zein etxeekoek, zeresan handia dute autoestimua jaisteko. Konparazioek, juzkuek, balorazio negatiboek, txikitatik etiketak ipintzeak... ere eragina dute autoestimuan. Umetan gurasoen arreta falta edo abandonua jasan duenak ere hori paira dezake. Norbere bizi penek ere ezinbestean autoestimua aldatzen dute eta bakoitzaren izaeraren baitan ere badago aldaketa.

Zer egin daiteke autoestimu gehiegi duenarekin?

Ez dago autoestimua gehiegi duenik. Autoestimua ona izateko norbere buruarekin harreman ona izan behar da eta onartu behar dugu zerbaiteko gai ez garenean gure burua gutxietsi gabe. Era berean, gai izan behar gara besteei balio bera emateko, ez gehiago ez gutxiago. Hortaz, autoestimua onak berdintasun harremanak ahalbidetu behar ditu. Jarrera menderatzalea duenak ez du autoestimua gehiegi, hori autoestimua faltsua litzateke.

oharrak eta deialdiak

ESKORIATZA

> 1958an jaiotakoek, Errioxara irteera

50 urte egiten dituztela ospatzeko, Errioxara irteera egingo dute 1958an jaiotakoek urriaren 18an. Parte hartzean, 50 euro sartu behar dira Euskadiko Kutxan ireki duten kontuan, urriaren 5a baino lehen.

ARRASATE

> Odol-ateratzeak egindutu urriaren 1ean

Etzi, eguztena, odo-la emateko aukera dago osasun etxearen, 16:30etik 20:00etara.

DEBAGOIENA

> Haitiri laguntzeko dei egiten du Serso GKEk

Haitin urakanak izan dituztela-eta, lagun-tza deialdia egin du han proiektu batzuk dituen Serso GKEk. Argibideak: www.csviator.es / www.serso.org.

BERGARA

> 1940ko kintoen ospakizuna Azpeitxin

1940ko kintoek urtero-ko batzarra egingo dute azaroaren 8an Azpeitxi jatetxeen. Antolatzaleek jakina-raziko diete datu gehia-go interesaruei.

ARRASATE

> 4. hizkuntza-eskakizuneko eskolak AEK-n

Debagoineneko AEK euskaltegiek 4. hizkun-tza-eskakizuneko balio ofiziala daukan maila emango dute aurten. Ikastaroa astean bi eguna.

nekoa da, arratsaldeean, urritik ekainera. Argibideetarako, jo AEK euskaltegira.

DEBAGOIENA

> Kulturartekotasunaren gaineko ikastaroa

Immigrazioa eta kul-turartekotasuna aztertzeko ikastaroa antolatu dute TAUk eta Gipuzkoako Caritasek urriaren 11rako, Gaudiaga Topagunean, Arantzazun. Izena emateko azken eguna urriaren 6a da. Argibideak: 943289956/tau_ss@taufundazioa.org.

BERGARA

> Fibromialgia dutenendako uretako jarduerak

Fibromialgia edo astenia kronikoa dute-nek uretako jardunaldiak egiteko aukera dute, Debagoineneko Kirol Zerbitzuek eta Bizi Bide elkartea antolatuta. Ikasturte osoan izango dira ekintzak, astelehen eta eguztenetan,

ESKORIATZA

> Euskarazko jolasak ikasteko aukera dute gura-soek, hiru eguneko ikastaro baten

Helduek euskarazko jolasak ikasteko eta seme-alabekin jolas egiteko aukera izan dezaten, ikastaroa antolatu du Eskoriatzako Udalak. Leku kopuru mugatua dago eta urriaren 6an bukatzen da izenemate epea. Hiru egunean emango dituzte eskolak. Argibideak, kultura etxearen (943 71 46 88) da telefonoa.

16:30-17:30. Argibideetarako, jo Agorrosin ekin-tza gunera (943 77 91 36).

ARETXABAleta

> Alergiengaineko hitzaldia, martitzenean

Alergien mundua delako hitzaldia izango dute Aretxabaletako erretiratuek bihar, martitzena, Basotxon, 17:00etan. Ainara Lopez-egi izango da hiszalaria. Edozein joan daiteke entzutera.

ARETXABAleta

> Odol emaileei gaurko dei egiten diete

Oadol-ateratzeak egongo dira gaur, aste-lehena, osasun etxearen, 16:00etatik 20:00etara.

BERGARA

> Udalaren egutegian argazkiak jar daitezke

Udalaren egutegian, publizitatea ez ezik, aurten argazkiak ere jarri ahal izango dira. Auke-ratutako argazkiak ordaindu egingo dira.

ELGETA

> Doako biodantzsa esko-la emango dute

Doako biodantzsa eskola antolatu dute urriaren 6rako, 09:15etik 21:00etara, eta izenemate epea zabalik dago honako telefono zenba-kietan: 606 63 61 99 (Ana) / 699 85 80 26 (Elena).

BERGARA

> Sorospen ikastaroa emango du DYAK

Lehen sorospen eta sorosle izateko ikastaroa emango du DYAK Bergarako kultura etxearen, urriaren 8an hasita. Argibideak, 943 46 46 22 telefonoan.

Argibideak, Udal Eus-kara sailean (943 77 91 79). Urriaren 20a da mugaeguna.

BERGARA

> 1968an jaiotakoek bazaria egingo dute

1968an jaiotako ber-gararrek bazaria egingo dute urriaren 25ean Tartufo jatetxeen. Autobusa ipiniko dute. Ize-na eman behar da Deportivo tabernan; 10 euro da.

BERGARA

> Gazteria plana aurkeztuko du Udalak

Gazteria plana aurkeztuko die Udalak nerabe eta gaztekin lan egiten duten profesionalei eta nahi duten hel-duei. Etzi, eguztena, izango da udaletxeko osoko bilkuren aretoan, 19:00etan.

ELGETA

> Doako biodantzsa esko-la emango dute

Doako biodantzsa eskola antolatu dute urriaren 6rako, 09:15etik 21:00etara, eta izenemate epea zabalik dago honako telefono zenba-kietan: 606 63 61 99 (Ana) / 699 85 80 26 (Elena).

943 25 05 05

goinkaria@goinena.com

etxeko leihotik



Usoa Agirre > uagirre@goinena.com

Bertsio originaleko filmen alde

D onostiaro Zinemaldia bukatu zen zapatuaren, Urrezko Mas-korra eman eta gero. Gogoko dut Zinemaldira joatea, film interesgarriak ikusteko aukera egoten baita, bertsio originalean. Filma japoniarrez, ingelesez edo alemanez izanda ere, azpitituluekin primeran jarrai zenezake istorioa eta bikoiztutakoak izaten dira eta bertsio originalean ikusi ohi ditugun bakarrak gaztelaniaz filmatutakoak dira.

Aspalditik ari da jendea ETB1-i filmak bertsio originalean emititu ditzala eskatzen, baina nahiago dute dirua bikoiztetan gastatu. Orain ere, ari dira iragartzen film estreinaldiak euskaraz. Zapatu gauean, *I, robot* filma eman zuten, euskaraz bikoiztuta. Bainaz ezin izan nuen Will Smithen euskarazko ahotsa agoantatu. Ez zuen Joxe Felipe Auzmendiren ahotsa (eskerrak!), baina betidanik entzun izan dugun beste ahots horietako bat zuen. Filmek asko irabazik luke bertsio originalean, euskarazko azpitituluekin, baina oraindik oso urrun dagoela dirudi.

"Zinemaldian fil, interesgarriak ikusteko aukera dago, bertsio originalean"

> Merkeagoa. Bikoiztea baino errazagoa eta merkeagoa da azpitituluak jartzea. ETB1-en

film bat bikoizten xahutzen duten dirua eta energia xahutu beharrean, jar ditzatela euskarazko azpitituluak.

> Internet. Euskarazko azpitituluak biltzeko guinea sortu du Luistxo Fernándezek. Umeendako filmekin hasi da, baina elkarlanarekin euskarazko azpitituluuen biltagi bihur daiteke. www.mantola.org/azpitituluak

debagoiendarrak kanpoan

Julen Irasuegi > Arrasate

"Arrasate uztea gogorra izan zen arren, orain oso gustura nago Zarautzen"

JOKIN BEREZIARTUA > ARRASATE

Zarautzen bizi da Julen Irasuegi (Arrasate, 1985). Orain hamar urte, 13 urte eskas zituela, ikastolako lagunak utzi eta herritik joan zen, familiak hala bultzatuta. Egun oso gustura bizi da Zarautzen, baina garai hartan lagunak eta Arrasateko bizitza uztea "oso gogorra" egin zitzaiola aitoru digu. Zarautzeko eskubaloiloi taldean jokatzen du eta Zestoako *Instalaciones Frigolán* enpresan dihardu lanean.

Nola gogoratzen duzu Arrasateko bizitza utzi behar zenuela esan zizutenean?

Ba egia esan, momentu har-tan 13 urte bakarrik nituen eta oso gogorra egin zitzaidan, batez ere ikastolako lagunak uztea. Oso oroitzapen txarrak gordetzen ditut hasierako egun horietaz.

Gerora, nolako esperientzia izan da Zarautzen bizitza?

Orain oso gustura bizi naiz hemen. Hasiera gogorra izan zen; eskola, lagun eta bizimodu berri batera egokitutu beharra. Hala ere, luzera oso ondo etorri zait, eta hemen daramadan bizimodua ezin naiz kexatu.

Zertan dira ezberdinak Arrasate eta Zarautz? Non bizi zara gusturago?

Bizimodu ezberdinak dira. Argi dago Zarautzen, kostaldeko herri turistikoa izanik, beste bizi maila bat dagoela. Udan, adibidez, ezin da hemengo uda Arrasatekoarekin konparatu. Hondartzak askorako ematen du. Bestalde, Arrasate inguruan lana aurkitze-ko erraztasun gehiago izango da, are gehiago, nire kasua moduan,



Zarauzko eskubaloitza

Zarauzko bigarren eskubaloitza taldean jokatzen du Julen Irasuegik, eta kirol honetan mai-la alta dagoela dio.

mekanizazio bidezko ekoizpena ikasi duen batentzat.

Azkenik, gusturago non bizi naizen esatea ez da erraza. Izen ere, urte asko pasa dira Arrasate utzi nuenetik eta ez dut hango egune-rokotasuna gogoratzen.

Nolako da zure egun normal bat Zarautzen?

Zestoako *Instalaciones Frigolán* enpresan dihardut lanean, eta eguneroko zortzi orduko lanal-diaz gain, entrenamenduetara joan eta lagunekin irtenetan naiz normal-ean. Zarauzko eskubaloitza taldean jokatzen dut, bigarren taldean.

Arrasatera bueltatzen al zara inoiz?

Nahi baino gutxiago. Hala ere, eta joan nintzenetik hamar urte pasa badira ere, Arrasateko

lagunekin, harremana izaten jarraitzen dut, zorionez. Ulertzeko denez, harremana hoztu egin da. Dena den, Arrasatera joaten naizen bakoitzean familia eta lagunekin egoten naiz.

Aukera suertatuko balitz Arrasatera bueltatuko zinateke?

Orain bertan, epe motzera, Zarautzen ikusten dut nire burua. Bainaz etorkizun batean, zergatik ez, ez dut aukera hori alboratzetan.

Nik ikasi dudanarekin lotu-duen lan eskaintza gehiago Arrasaten dago, beraz, nor daki nire jaioterrira itzuliko naizen...

Zerbait gaineratzerik nahi?

Agur bero bidali nahi diet aspaldi ikusi ez ditudan Arrasateko lagun guztiei, ea noiz dudan eurekin egoteko aukera.

kale inuesta


Donostiako zinemaldia jarraitu duzu? Horko filmak zineman ikusteko ohitura duzu?



Manuel Ortiz
Langilea
Bergara



Almudena Sanchez
Langilea
Bergara



Asier Aizpurua
Ikaslea
Bergara



Nerea Amaia Cerdeira
Langilea
Bergara

Ez. Inoiz ez naiz Donostiako Zinemaldian izan. Zinemara joaten naizenean gustuko ditudanak ikusten ditut, han aurkezten direnak kontuan hartu barik. Hori bai, telebistan agertzen diren aktoreak ikusten ditut.

Ez, ez naiz joaten. Donostiara joaten naiz lasaiago dagoenean. Jarraitzen ditut, baina, Zinemaldira zeintzuk datozenen albisteak. Filma batek kritika onak jasotzen baditu kontuan izaten dut zinemara joaten naizenean.

Inoiz ez naiz Zinemaldian izan; jarraitu ere ez dut egin. Zinema ez dut larregi gustuko. Gutxitan joaten den horietako naiz. Bereziki komediak ikusten ditut zinemara joaten naizenean.

Zertxobait jarraitzen dut, lankideek horren gainean hitz egiten dute-lako. Baina, ez naiz oso zinema zalea. Gainera, Bergaran aspalditik ez dugu zinemarik eta aste bukaeran denborarik ez dut horretarako.

irakurlearen txokoa

943 25 05 02

goienkaria@goiena.com

ARAMAIO

> Rallyprintean 'berotu' eta zoroak moduan etxera

Joan den astean Aramaiko rallyprintaren ondoren Aramaion ibili ziren hainbat auto gidari haserre erretiratu ziren etxera. Antza denez, ikustekoa izan zen rallyprinteko ikusle izan ziren batzuk lasterketa ondoren zelan ibili ziren: "Momentu batean autoa bide bazterrean uztea pentsatu nuen. Autoak edozein lekutan aurreratzen, sekulako abiaduran...", adierazi du Kurtzetan gora zihoa auto gidari batek. Batzuek ez dakite bereizten araututako lasterketen eta errepidean normal ibiltzearen artean ze alde dagoen.

LEINTZ GATZAGA

> Seinale hobeak jarri kamioiendako

Joan den astean bertan kamioi batek Leintz Gatzagako errepide zaharreko zirkulazioa bost orduz eten zuen, behar ez zen lekuik igo zelako. Eskoriatzako biribilgunean jartzen du 15 tona baino gehiagoko kamioiek Arlabanetik joan behar dutela, baina antza, hori ez dago behar den moduan adierazita.

ARETXABAleta

> Untzillara doan errepidea ez da autoen zirkuitua

Gellaora paseatzena joaten diren lagun batzuek salatu dute behin baino gehiagotan beldurrez ibiltzen direla, gazteek Aretxabaleta eta Untzilla batzen dituen errepidea erabiltzen dutelako autoekin ziztu bizian ibiltzeko. Gellaor auzoko bizilagunek ere baieztago dute hori.

Goienkaria

Argiratzalea Goien Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE Lehendakaria Etxepa Plazaola Zuzendaria Inazio Arregi

Zuzendaria Eneko Azkarate Erredaktore burua Edu Mendibil Erredakzioa Mirian Biteri, Txomin Madina, Xabier Urtzelai Oinarrizko diseinua Goio Arana Diseinu arduraduna Iñaki Iturbe Maketazioa Kepa Martelo Publizitate arduraduna Mireia Larrañaga Harpidetza eta banaketa Marta Leturia Administrazio arduraduna Agurtzane Gaintzaran

EGOITZA NAGUSIA
BERGERA 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12
Posta-e: goienkaria@goiena.com

ORDEZKARITZAK

ARRASATE 20500 Otañor Lizenziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12
Posta-e: arrasate@goiena.com

ARETXABAleta 20550 Durango 11 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

Publizitatea Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 09
Posta-e: publi@goiena.com

Harpidetza Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

Lege Gordailua: SS-0084/04 • ISSN: 1697 3542 • Tirada: 5.000 ale



Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria



Gipuzkoako
Foru Aldundia

zorroztalea



Elena Laka

Meryl

"Tragikomediak nahiago ditu? Ez, ni dantza nork eskatuko zain dagoen neskila naiz. Ez naiz ekoilea, beraz ez dut gidoia kontrolatzan. Etortzen zaidana begiratu eta auke- ratzen dut. Ez dut inoiz nire karerra gidatu nahi izan. Ez dut mugimendu estrategikorik egin. Niregana iritsi eta merezi izan duten gidoiei erantzun diet"

Meryl Streep, Berria > 2008-09-27



C larks moduko oinetakoak jantzia agertu zen Meryl Streep handia Donostian. Joana Kramer, Sophie Zawistowska, Karen Blixen eta, oraintsuago, *Mamma mia*-ko Dona, oinetan arazoak dituzten berrogeitamapikuko emakumeek era- bili ohi dituzten oinetako eroso eta aldi berean eleganteak ipi- nita jenderatu zen. Handitasuna eta apaltasuna bateratzeak ematen duen hurbiltasunarekin. Nola ulertu bestela munduko aktore onenetariko batek, bere burua dantzaldian zain dagoen neskila moduan definitzea, inongo botererik ez duela aitor- tza, eta aldziz, lau seme-alabekin nahiko lanpetuta dagoela esatea. Bele zuria bere burua goresteaagaitik edozein gauza egiteko gertu dauden erdipurdikiloen garaian. Zeren ohitura gaude diru piska bat egin duen, lanean piska bat aurrera egin duen edo politikari esker piska bat nabarmendu den badezpa- dako gizonttoak ikusten, boterea kosta ala kosta erakutsi nahian, bere burua loriaz betetzen, obje- tu handi eta garestiz inguratzan, hankasartze edo zalantza txikie- na sekula aitortuko ez dutenak.

Txanponaren beste aldean, arrakasta eta aitortza lortu arren, euren lana egunero analizatzen dutenak, profesionalki urrutti iritsi arren, hala ere lana- ren egokitasuna kuestionatzen dutenak, eta hori guztia egunero- koari horpoz horpo lotuta daudenak. Azkenaldian gero eta gehiago dihardut jarrera hau ikusten emakumeen artean, eta adibidea asteburuko egunkarietan, Maria Teresa Camposek: "Programa bat bukatzen dudan bakoitzean, beti pensatzen dut hobeto egin nezakeela"; Aitana Sánchez Gijonek: "Nahiz eta aktore errespetatua naizela jakin, oraindik lortzeko asko falta zaidala uste dut". Atsegin dut apaltasun hori, inoiz pentsatzeke muga lortu duzula edo gailurrera iritsi zarela. Uste dut pertsonari hurbiltasuna eta hobetze nahia ematen diotela. *Clarks versus Rolls*.

**"Emakumeek
erabili ohi dituzten
oinetako eroso eta
eleganteak ipinita
jenderatu zen"**

**"Atsegin dut
apaltasun hori,
analizatze hori"**



KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria

Herriak

Arrasate > 10 Bergara > 11 Oñati > 12 Aretxabaleta > 13 Eskoriatza > 13
Antzuola > 14 Aramaio > 14 Elgeta > 14 Leintz Gatzaga > 14



> ARRASATE

Datorren astean hasiko dira biribilgunea egiten, Gelma parean; bi zatitan egingo dituzte lanok > 10



> OÑATI

Azkoagaineko oinezkoen sarrera konponduko dute, irisgarritasun planaren barruan > 11



> ARETXABAleta

Ekimenez beterik dator Arkupeko egitaraua: antzerkia, ikastaroak eta bestelakoak > 13



NEKAZARITZA EKOLOGIKOA Kurtzebarri eskolakoek ere euren postua izan zuten azokan.

JOSETXO ARANTZABAL

Atxabaltarrek ez zuten hutsik egin San Migeletako azokan

Durana kalea estu geratu zen zenbait momentutan zebilen jende guztia hartzeko

Salmentetan jaitsiera egon zela esan arren, saltzaileak orokorean gustura zeuden.

TXOMIN MADINA > ARETXABAleta
Urtero bezala, Durana kalean jarri zituzten zapataun San Migel jaien barruan egiten diren artisau feria eta azoka ekologikoa. Postuei dagokienez, artisauetan iaz baino hamar bat postu gehiago egon ziren, denera 39 postu. Produktu natural eta ekologikoen saltzen egon ziren nekazariak, berriz, 13 izan ziren.

Zeramika zein beirazko lanak, haurrendako ipuinak, bitxiak, kosmetika ekologikoa, etxeak egindako txokolate eta bonboiak, zuzenean ortutik har-tutako barazkiak, sasoian sasoi-

ko frutak... Ehundaka kolore, zapore eta itxura, denak ere kalean zehar jarritako mahaietan ikusgarri.

Postuetako produktuak eta eskulanan ikusten eta dastatzen ibili ziren atxabaltarrek ere asko eta asko izan ziren; erosten, hori bai zertxobait gutxiago. Izan ere, horixe zen saltzaileen ahotik gehien entzuten zena: orokorrean salmentekin gustura bazeuden ere, krisiarenengatik-edo, aurreko urteetan hona pixka bat jaitsi egin direla esan zuten askok.

Dena den, batek baino gehiagok adierazi zuen, horrelako azokak asko saltzeko baino jendearen artean ezagutzera emateko balio dutela, eta badirela urtero urtero euren produktuak erostera hurbiltzen diren bezero fidelak ere.

Krisirik edo antzerakorik nabaritu ez zutenak Kurtzebarri eskolako lehenengo eta bigarren mailako ikasleak izan ziren. Urtero bezala, ikasturtean zehar Jose Lonbide nekazariarekin euren baratzean era naturalean landutako produktuak izan zituzten salgai, eta 12:30erako ez zen ezertzera geratzen.

KALE ANIMAZIOA

Baina salmenta postuetaz gain, bestelakoik ere egon zen kalean: herriko trikitilarriak goizean goizetik ibili ziren euren pizeze-

kin giroa alaitzen, eta Gautegiz Arteagako Carmen Bollaren zaramika tailerra ere egon zen jarrita, katiluak eskuz nola egiten diren erakusteko. Batez ere hau-

rrak, baina helduak ere ibili ziren bertan. Loramendi elkartea antolatuta, gainera, zanpantzarrak ere ibili ziren kalean gora eta behera arranak astintzen.

ARTISAU ETA NEKAZARIEN IRITZIA



Olatz Gandarias
Nekazari ekologikoa



Kote Rivera
Artisau txokolategilea



Mari Carmen Alzibar
Lore sikuekin apaingarriak

"Askotan azoka hauiek folklore hutsa dira; jendeak erosi harren, ohiko erosketak supermerkatuetan egiten dituzte."

"Batzuek diote produktu garestiak direla, baina nahiago dut merkeagoa egin beharrean, kalitatea zaintzea"

"Asko gustatzen zait Aretxabaletako feria; egia da aurten gutxiago saldu dela, baina orokorean ondo joan da dena"

OBRAK > BIRIBILGUNE BERRIA, GIPUZKOA ETORBIDEAN

Datorren astean hasiko dira biribilgunea egiten, Gelma parean

Joan den astean ibili ziren Obenerrekarako aldapako irlatxoan landareak-eta kentzen

Bi zatitan egingo dituzte biribilgune berriaren obrak, zirkulazioa ez eteteko

UBANE MADERA > ARRASATE
Gipuzkoako etorbidean obretako semaforoa ipini zuten joan den astearren amaiera aldera; eta Obenerreka ingurutik Gipuzkoako etorbidera jaisteko errepeide zatia itxita dago harrezkero. Errepide ondoren obrak egiten dabilzalako ipini dituzte semaforoak, makina hondeatzaileak dabilza-eta inguruau. Pare bat astean izango dira semaforoak ipinita. Oraingo astearren amaiera alderako kendu egingo dituztela aditzera eman dute Obenerreka enpresako ordezkariek, obra horren ardura dutenek. Semaforoa kentzeaz bat, jakina, Obenerrekatik jaisteko errepeidea atzera ere zabalik utziko dute.

Horrekin batera, kontatu dute Gelmako antzinako lantegira sartzeko hesia ere kenduta dagoela joan den astearaz gerotzik.



Obretako semaforoak ipini zituzten joan den astean Gipuzkoako etorbidean eta biribilgunea egiteko berriro ipiniko dituzte. U.M.

BIRIBILGUNE BERRIA

Edozelan ere, ez dituzte inguru hartako obra denak bukatu. Datorren astean, biribilgune berria eraikitzen hasteko asmoa dute,

Obenerreka-Makatzenara igotze-ko aldaparen parean.

Bi zatitan egingo dituzte biribilgunearen obrak. Obenerreka-tilk emandako azalpenen arabera,

lehenengo biribilgunearen behoko aldea eraikiko dute, babes ofizialeko etxeen aldera ematen duen zatia, alegia. Zati hori egiteko, zirkulazioa apurtxo bat desbidera-

tuko dute, goiko partetik. Hau da, gaur egun, Obenerrekara igotze-ko dauden irlatxo bi horien ingurutik. Eta hain zuzen, desbidera-keta egiteko, irlatxo txikia kendu egingo dute; eta kendu egingo dute, baita ere, irlatxo handiaren erdia. Joan den egunean ibili ziren irlatxo handiko lore, landare eta apaingarriak kentzen.

Biribilgunearen behoko zatiaren obrekin batera, etxe berrien urbanizazioaren barruan lortegi bi egingo dituzte.

Lehenengo zati hori eraikitze-ko hiru bat aste beharko dituzte langileek. Eta behin zati hori bukatzean, atzera ere desbidera-tu egingo dute zirkulazioa, biribilgunearen goiko zatia eraikitze-ko. Kasu horretan, baina, biribilgunearen behoko partetik pasako dira errepeidearen bi noranzkoak.

ZIRKULAZIOA GUZTIZ ITXITA

Bien bitartean, biribilgunearen goiko zatia egiten hasiko dira. Hori egin ahal izateko, Obenerrekarako pasoa guztiz itxi beharko dute; beraz, IFAM-eko etxe ingurutik edo Altamiratik ibili beharko dute Makatzena ingurura doazen ibilgailuek.

Biribilguneko obrak bukatzeko bi hilabete eta erdiko epea aurreikusi dute. Eta horrekin, errepeide inguruari dagozkion urbanizazio obrak bukatutzat emango dituzte.



JOKIN BEREZIARTUA

20.460 euro saritan, Monteko Espainiako Itzuliko porran

Monte tabernaren Espainiako Itzuliko porraren sari banaketa izan zen pasa den egunean. Aurten ere errekorra apurtu dute parte hartzaleei dagokienez: 718 izan dira guztira, iaz baino 100 gehiago. Ohi bezala, lehen hamarrak sari zuizten. Hala, irabazlea Cris eta Juankar partaidea izan zen (8.616 euro), bigarrena Flipi (5.385 euro) eta hirugarren -Jesusines- eta laugarrenak -Kutturru- berdindu egin zuten (bakotzak 1.615 euro). Gainerakoek 538 euro eskuratu zuten. Aurten Internet bidez izena emateko aukera egon da; saretik 152 pertsona apuntatu dira.

HIRIGINTZA > SAN JOSEPE HARROBIAREN IDEIA LEHIAKETA

Asteon ezagutuko dira proposamenak

Harrobiari erabilera berria emateko ideiak Euskal Herritik, Estatutik eta atzerritik ere heldu dira. 70 bat talde inskribatu dira

JOKIN BEREZIARTUA > ARRASATE

San Josepe harrobiaren ideia lehiaketara aurkezteko epea bihar amaituko da. Azkenaldian oihartzun handia izan duen gaia, asteon ezagutu ahalako dira lehiaketan parte hartze-ko aukeratu dituzten proposamen guztiak.

Udaleko Hirigintza Sailak jakinarazi duenez, harrobia inguratzen duen guneari probetxua ateratzeko 70 talde inguru eman dute izena. Horieta-

tik, antzerako kasuetan gerta-tu denez, Udalak uste du izena eman duten hainbat talde atze-rala botako direla eta beraz, ez dutela inskribatuta dauden guztiak lehiaketan parte hartuko.

ERAKUSKETA ETA AUKERAKETA

Lehiaketan parte hartuko duten ideiekin erakusketa egingo da Kulturaten, urriaren 14an hasi eta azaroaren 9ra bitartean.

Erakusketa amaitzean bost ideia onenak aukeratuko dira, eta horietatik lau espresuki eratutako epaimahaiak aukera-tuko ditu. Epaimahai San Josepe harrobi lehiaketako batzordeko kideek, eta Udaleko, Foru Aldundiko eta Eusko Jaurlari-zako ordezkariek osatzen dute, besteak beste. Beste proposame-na herritarrek aukeratuko dute, Kulturaten bertan gauza-tuko den bozketa bitartez.



Lanen lehen egunetan luraren azpiko hodi eta instalazioen egoera nolakoa den aztertzen dihardute.

XABIER URTZELAI

HIRIGINTZA > URBANIZAZIO LANAK

Hasi dira San Pedro kaleko urbanizazio lanak

Lanak urte amaierarako amaitzea da Udalaren asmoa; hala ere, lur azpitik doazen hodien egoerak baldintzatu dezake lanen iraupena

JASONE ZABALA > BERGARA

Pasa den astean hasi ziren San Pedro kaleko urbanizazio lanekin. Baina lanen lehen fasean, kontutan hartu behar diren beste gauza batzuk aztertu behar dituzte, lur azpiko berritze lanek zailtanak izan ditzaketelako. Jose

Mari Etxeberria Udaleko aparezadoreak zera adierazi digu: "Lur azpian dauden ur-hargune denak zaharkituta daude eta ez dakigu zein egoeratan dauden. Beraz, lehen egun hauetan azterketak egiten dihardugu lur azpiko egoera aztertzeko". Lur azpiko ego-

ra aztertu ondoren, hasiko dira kalea zulatzen berritze lanekin hasteko. Lanak Biona pentsu dendaren aldetik hasi eta Leturia harategi ondoan amaituko dira.

AHALIK ETA ERAGOZPEN GUTXIEI

Lanek iraun bitartean, bertako biztanle eta dendariei "ahalik eta eragozpen gutxien sortzea da asmoa eta helburua", adierazi digu Etxeberriak.



MIKEL GOMEZ

Basalgoko jaietako zozketako saria Elorriora joan da

Urtero moduan, zozketa egin zuten Basalgo auzoko jaietan, uztailaren amaieran. Zenbaki saritua uztailaren 27ko ONCEko itsuen zozketan ateratako zenbakia izan zen. Saria Elorrioko Juan Carlos Alonso izan zen. Produktu sorta ederra eta lau lagunendako afaria eraman zituen sari moduan. Argazkian, Alonso jai batzordeko Jesus Guridiren eskuak saria jasotzen. Bide batez, jai batzordeak eskerrak eman nahi dizkie jaiak prestatzen lagundu zuten guztiei eta jaiez disfrutatzen Basalgora joandako guztiei ere.

ERRETIRATUAK > GAUR, ANGOZARREN

Erretiratuen abesbatza, Angiozarrera eta Donostiara

J.Z. > BERGARA

San Joxepe erretiratuen elkartea buru belarri dabil prestatzen datorren egunetan zehar izango dituen kontzertuak. Gaur, astelehena, Angiozaren abestuko dute bertako jaien barruan: 11:30ean Meza Nagusia izango da eta han izango dira erretiratuen abesbatzakoak.

URRIAN, DONOSTIARA

Urriaren 2an, berriz, Donostiarra joango dira bertako Principal

antzokian, Gipuzkoa, Araba eta Bizkaiko beste lau elkarteko abesbatzak batera: Gasteiz, Mutriku, Hondarribia eta Gorlizko abesbatzak, alegia. Bestalde, esan urriko bigarren astean hasiko direla kultura hamabostaldiarekin, urriaren 13tik 25era bitartean; egitarau zabaleta gertatzen dihardute; hitzaldiak, irteerak, txapelketak eta bestelakoak antolatuko dituzte aurten ere. Laster emango dute egitarauaren berri.



San Joxepe elkarteko kideak uztailean Olitera egindako txangoan.

SAN JOXEPE

> JAIAK

Angiozar auzoko San Migel jaien amaiera gaur izango da San Migel egunaren ospakizunarekin

Azken egunerako hainbat ekintza prestatu dituzte. Meza Nagusia 11:30ean izango da erretiratuen abesbatzarekin. Ondoren, lurcha egongo da Pagomendi elkartean; 13:00etan trikitilarien kalejira; 16:00etan jolas puzgarriak eta 20:30ean San Migelen zeruratzea.

> ELIZA

Bergarako parrokietako eta auzoetako meza ordutegi berriak martxan dira Gabonak arte

Bergarako parrokietako eta auzoetako meza orduengoa izango dira Gabonak arte: astean zehar 19:00etan San Pedron eta Santa Marinan, txandakatz; gaur, astelehena San Pedron hasiko dira. Zapatuetan, 18:00etan San Pedron; 19:00etan Santa Marinan; eta 20:00etan San Lorentzon. Domeketan, 11:00etan Labegarietan, 12:00etan Santa Marinan eta 12:30etan San Pedron.

> ZERGAK

2008ko ekonomi jardueren gaineko zergaren erreziboak ordaintzeko epea zabaldu du Udalak

Erreziboak horiek ordaintzeko borondatzeko epea urriaren 1etik azaroaren 10era zabaldu du Udalak. Borondatzeko epea amaitu ondoren, errekgauaz egin beharko dira ordainketak. Ordainketa, banquette batean helbideratuta dutenei bertatik egingo zaie; besteei, beraien etxearen jasoko dute ordainketarako agiria. Azalpenen bat nahi duen edonor kontu hartzailetzako bulegoetatik pasa daiteke.

> IKASTAROAK

Eskolaz kanpoko euskara saioak antolatu ditu Udalak 16 urte bitarteko gazteendako

Bergarako Udaleko Euskara Batzordeak, Jardun elkarteaarekin eta Udal Euskaltegiarekin elkarlanean, ume eta gazteendako eskolaz kanpoko euskara saioak antolatu ditu 2008/09 ikasturterako. Honen inguruko argibideren bat nahi duenak – izen emate eguna, ordutegiak... – Udal Euskaltegira deitu dezake, ondoren telefono zenbakira: 943 76 44 53.

INFORMATIKA > IKASTAROAK

Urrian hainbat mintegi egingo dituzte KZgunean

Ikastaroan eta mintegietan parte hartzeako izena aldez aurretik eman behar da KZguneko bulegoan bertan

MIREIA BIKUÑA > OÑATI

Kultura etxeen dagoen KZguneak hainbat mintegi eta ikastaro bat antolatu ditu urrirako. Mintegiak egun bakarrekoak, bi egunekoak eta bostekoak dira, eta ordu batekoak edo bikoak, gaia-ren arabera. Era berean, ikastaroa 20 ordukoak izango da.

HAMAR EGUNEKO IKASTAROA

Interneteko oinarrizko ezagutzak dituztenendako gai zehatz batzuen inguruko mintegiak egingo dituzte KZgunean. Beheko taulan daude urrian egingo dituztenak, egun eta orduetan.

Bestalde, Internet mundua ezagutzen 20 orduko ikastaroa emango dute urriaren 6tik 17ra eta 20tik 31ra. Ordenagailua ez-

gutu, nabigatu eta posta elektronikoa erabiltzen ikasteko aukera izango dute, besteak beste. Hamar egunetako ikastaroa goiz eta arratsaldez emango dute; hain zuzen ere, 09:00etatik 11:00etara, 16:30etik 18:30era eta 18:30etik 20:30era. Mintegietarako eta ikas-

tarorako izena aldez aurretik ematea aholkatzen du KZguneko tutoreak: "Aurretek komeni zai-gu jakitea zenbat lagunek parte hartuko duten, gutxi egonez gero ikastaroa bertan behera geratzen da-eta". Izena emateko hauxe da KZgunearen ordutegia: astelehenetik egubakoitzera, 09:00etatik 13:00etara, eta 16:30etik 20:30era.

BESTE AUKERA BATZUK

Ikastaroez gain KZgunean nabigatzeko aukera dago. "Nabigazio gelan zazpi ordenagailu ditugu. Bestalde, prestakuntza gelan, ikastaroetarako, hamar ordenagailu ditugu", diosku tutoreak.



Azkoagaineko sarrera bi fasetan konponduko dute.

MIREIA BIKUÑA

LANAK > IRISGARRITASUN PLANA

Azkoagaineko oinezkoen sarrera konponduko dute

A2B enpresak egindako proiektuan lanok egiteko bi fase aurreikusten dituzte

arteko gunea hartzen duena; eta beste alde batetik, Arantzazuko errepidearen ertzetik futbol zelaira arrapala bidez iris-teko bidea hartzen duena.

ERREPIDEETAKO ZUZENDARITZA

Udalak eskuartean duen proiektuak lehen fasea egitea aurreikusten du. Ostera, bigarren zatia egiteko, Errepideetako Zuzendaritza Nagusiarekin hainbat gai adostu beharko dituzte udal arduradunek, erre-pidea Foru Aldundiarena jabe-tzakoa da-eta.

Azkoagaineko sarrerako konponketak lehenbailehen hasteko asmoz, aipatutako lanok, Construcciones Murias S.A enpresari esleitu dizkiote 50.400 euroren truke.

KZguneko mintegiak, urrian

IKASTAROA

IKASTAROA	EGUNA	ORDUTEGIA
Sinadura elektronikoa	Urriaren 7an eta 22an	11:00-13:00
Sinadura elektronikoa	Urriaren 16an	16:30-17:30
Sinadura elektronikoa	Urriaren 27an	18:30-20:30
Kontsumitailea sarean	Urriaren 20an	11:00-13:00
Irudi digitalaren tratamendua I	Urriaren 21etik 22ra	18:30-20:30
Irudi digitalaren tratamendua II	Urriaren 23tik 24ra	18:30-20:30
Www.eustat.es	Urriaren 24an	09:00-11:00
Justizia ezagut ezazu	Urriaren 28an	09:00-11:00
Finantzarekin lan egin I eta II	Urriaren 28an eta 29an	11:00-13:00
Bat-bateko mezularitza	Urriaren 30etik 31ra	11:00-13:00

Iturria: Oñati KZgune

M.B.> OÑATI

Azkoagain futbol zelaiaren erabilera asko gehitu dela kontuan hartuz, futbol zelaira iris-teko dagoen oinezkoen sarbidea konpontzea erabaki du Udalak. Irisgarritasun planaren bigarren faseko proiektua egin zuen A2B enpresak osatu duen proiektuaren arabera, lanok bi fasetan egin beharko lirateke: alde batetik, Beneditarren komentua eta Azkoagainera sartzeko dauden eskaileren

UDALA > OSOKO BILKURA

Legez kanporatzeen aurkako mozioa ez zuten onartu

Azkeneko atentatuak gaitzesteko mozioa aho batez onartu zuten osoko bilkuran

M.B.> OÑATI

Bi mozio izan ziren protagonista pasa den astean egindako osoko bilkuran. Hain zuzen ere, EAE-ANV eta EHAK alderdien aurkako epaiak eta ETAk egindako hiru atentatuak gaitzesteko mozioak aztertu zituzten. Legez kanporatzeen aurkakoa bertan behera geratu zen, eta atentatuak gaitzestekoa aho batez onartu zuten.

'ETA KANPOAN NAHI DUGU'

Bigarren mozioan ETAk Santonan, Ondarroan eta Gasteizen egindako atentatuak "gaitzestu" zuten. Gainera, kaltetutako eta zauritutako herritar guztiei "babesa, elkartasuna eta adiskidetasuna" adieraztea adostu zuten, eta ETA "kanpoan" nahi dutela berretsi zuten.

Gainera, ETAk giza eskubideen aurka eta erakunde borritz moduan irauten duen bitartean egiten dituen ekintzek, demokrazian eta giza eskubide- eta oinarritutako gizartea eraikitzeo duten borondatea eta konpromisoa "mespreza-tzen" dituztela adierazi zuten.

'ERASO BORTITZA'

EAE-ANV eta EHAK alderdien aurka Auzitegi Gorenak eman-dako epaiak eta amnistiaaren aldeko mugimenduan urteetan lanean ibili diren hainbat pertsonen aurkako ebazpena, "Euskal Herriaren eskubideen aurkako eraso bortitza" dela zioen mozioa ez zuten onartu.

Bestalde, PPko zinegotzi Julio Perez de Arriluzeak salatu zuen bi mozioak aurkeztean EAJk "bi aurpegii" dituela era-kusten duela, eta osoko bilku-ran aurkeztutako mozioak "bateraezinak" direla azpimarratu zuen. Legez kanporatzeen aurkako moziorekin biktima-k "umildu" egin dituztela salatu zuen.



MIREIA BIKUÑA

Plazako kioskoan dauden eskailerak estali egin dituzte, eta sarreran ate jarri dute basbegarri modura

Guraso baten eskaera aintzat hartuta, plazako kioskoan ate babesgarria jartzeko erabakia hartu zuen Udalak ekainaren 19ko Tokiko Gobernu Bazaarrean. Lanok bukatu dituzte. Hain zuzen ere, komun publiko izan zirenetara jais-teko dauden eskailerak estaltzeko zementua bota dute, eta sarreran ate babesgarria jarri dute. Kiosko komun publikoak itxi zirenetik, zabor eta zikinka-asko pilatu zen han, eta eskaileretik jaistea oso erreza eta arriskutsua zen umeendako. Hortaz, kiosko inguruan neska-mutiko asko ibiltzen zela kontuan hartuta egin dituzte babesgarri lanok Foruen Enparantzako kioskoaren eskaileretan.

> ARETXABAleta

Gaur herri barrurako tarifak eta herriko plazako merkatariendako hobariak zehaztuko ditu Udalak

Gaur, astelehena, arratsaldean osoko bilkura egingo dute Aretxabaletako udaltxean. Gai-zerrendan azaltzen diren puntuen artean, datorren urtera begira herri barruko tarifen proposamena aztertuko du udalbatzak.

Horretaz aparte, herriko plazan dauden merkatariendako hobariak zehazteaz ere arduratuko dira udalbatzakoak. Ohikoa den moduan, osoko bilkurari 18:00etan emango diote hasiera pleno aretoan.

> ARETXABAleta

Alergien gaineko hitzaldia antolatu dute bihar arratsaldean Basotxo elkartearen egoitzan

Aretxabaletako erretiratuek alergien gaineko xehetasunak ezagutu ahal izango dituzte bihar, martitzena, Basotxo elkartearen *Alergen mundua* izeneko hitzaldia antolatu du-eta.

Ainara Lopetegi izango da horren inguruko azalpenak emateaz arduratuko dena. Era berean, entzuleen artean sor daitezkeen zalantzei erantzuna emango die Lopetegik. Hitzaldia 17:00etan hasiko da eta Basotxotik jakinarazi dutenez, edozeinek parte hardezake horretan.

> ARETXABAleta

Oinetako errelexologia ikastaroa antolatu dute urritik abendura bitarteko astelehenetan

Oinetako errelexologia ikastaroa hasiera mailakoa izango dela jakinarazi dute antolataileek. Horrekin batera, saioak urriaren 6an hasiko direla eta abenduaren 15era arte iraungo dutela azaldu dute. Aredhana zentroan egingo dira astelehenetan, 16:30etik 18:30era bitartean.

Oinetako errelexologia ikastaro horretan interesa duenak 943 79 35 76 telefono zenbakira deitu behar du. Urriaren 5era arte dago izena emateko aukera.

> ESKORIATZA

Udalak peoi-lurperatzaile laguntzailea behar du eta hori betetzeko lehiaketa zabaldu du

Eskoriatzako Udalak peoi-lurperatzaile laguntzaile lanpostua lehiaketa bidez betetzeko deialdia egin du. Iragarkia eta oinarriak irailaren 23ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ziren, baina Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea falta da. Iragarkia Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren bihamunetik kontatzen hasita 20 laneguneko epean aurkeztu beharko dira eskariak udaltxean. Udal webgunean eta udal iragarki taulan egongo dira eskura deialdi horren gaineko berriak.

> ESKORIATZA

Errioxara irteera egingo dute 1958ko kintoek urriaren 18an, urezko-ezteiak ospatzeko

Urteurrena ospatzeko asmoz, plan ederra antolatu dute 1958 urtean jaiotako eskoriatzarrek. Errioxa aldera joatea pentsatu dute. Irteera hori egiteko data dagoeneko jarri dute: urriaren 18a. Interesu dutenek Euskadiko Kutzako ondorengo kontuan 50 euro sarrtu behar dituzte: 30350044830440026273.

Urriaren 5ean izena emateko epea amaitzen da. Irteera horren gainean edozeinek zalantzaren bat badu 647 29 00 54 edo 649 51 18 92 telefono zenbakietara dei dezake.

> ESKORIATZA

Datozen hilabeteetan eguzki plakak jarriko dituzte Luis Ezeiza ikastetxeen eta liburutegian

Urte hasieran Udalak eta Energiaren Euskaraldeak lankidetza hitzarmena sinatu zuten, energiaren arrazoizko erabilera eta energia berriztagarrien ustiapena sustatzeko. Horren baitan, besteak beste, bost kw potentziako bi instalazio fotovoltaiko jar-tzea erabaki zuten: Luis Ezeiza herri eskolan bata eta liburutegian besteak. Instalatzailak joan zen astean egon ziren esandako bi eraikin horiek ikusten eta lanak urria bukaeran edo azaroa hasieran hasiko direla jakinarazi dute. Sortzen duten argindarra saldu egingo dute.



GOIENKARIA

ARETXABAleta > KULTURA

Ekimenez beterik dator Arkupeko egitaraua

Antzerkia, ikastaroak, ikus-entzunezkoak, umeen ikuskizunak eta erakusketa daude, esaterako

MIRIAN BITERI > ARETXABAleta

Kultura eskaintza zabala prestatu dute urriari begira, Arkupen. Musika zaleek The Beatles talde mitikoaren gaineko erakusketa bisitatu ahal izango dute eguztenetik. Ikus-entzunezkoak ere ez dira faltako. Astero egongo dira, eguenetan. Bidaien gainekoak

izango dira gehienak. Tartean, Alberto Iñurrategi aretxabaletarraren *Miradas a cámara: begiz begi* izeneko dago, urriaren 9an. Bestalde, hitzaldi bakarra izango da osasunaren gainekoak. Jose Mari Horcajada gudariaren liburuaren aurkezpen ekitaldia ere aurreikusten du egitarauak.

IKASTAROAK

Ikastaroei dagokionez, bitxiak egiteko eskolak berriro ematea erabaki du Kultura sailak. Josetea gustuko dutenek ere eskolak jaso ahal izango dituzte.

Haur ikuskizunek eta antzerkiak ere tarte garrantzitsua izango dute. Zaraia aretoan egingo dira horiek; umeei zuzendutako ikuskizunak zapatu arratsaldean eta antzezlanak, berriz, bariku eta zapatu gauean.

ESKORIATZA > EUSKARA

Euskarazko jolasen ikastaroak eskainiko dituzte urriko zapatueta gurasoendako

Urriaren 6a arte eman dezakete guraso eskoriatzarrek izena; ikastaro horien truke hamar euro ordaindu beharko dituzte

tan ikasiko dituztenak: zozketa-ko eta soka saltoko jolasak; esku-koak eta gomakoak; animazio-koak eta mimikakoak; lerroka-ko eta korro eta baloi jolasak, besteak beste.

ZAPATU GOIZETAN

Eskolak zapatu goizetan izango dira. Euskara teknikari Mari Carmen Arrietak jakinarazi du dagoeneko zehaztuta dagoela ordutegia. Bi orduko saioak izango dira: 10:30etik 12:30era bitartean. Arrietak gogora ekarri du, gainera, parte hartzea mugatuta dagoela; plaza kopurua mugatua da.

Euskara sailetik azaldu dute euskarazko jolasak ikasteko ikas-taroenetan parte hartzeagatik hamar euro ordaindu beharko dituztela gurasoek. Horrekin batera, nabarmendu gura izan dute umeendako zainketa zerbitzuza eskainiko dela nahi dutenen-

dako. Ludotekan izango da hori. Azkenik, parte hartzeko gombita egin dute Euskara sailetik: "Oraintxe dute aukera euskarazko jolasak ikasteko eta seme-alabekin edo inguruan dituzten hau-rekin euskaraz jolasteko".

BASABE jatetxea



Basabe bidea z/g
Tel.: 943 77 07 94
Aretxabaleta



The Commitments talde irlandarrak soul doinuak ekarriko ditu Espaloira urriaren 18an.

GOENKARIA

ELGETA > KULTURA

Prest dute Espaloian programazio berria

Ikasturte berriari hasiera emateko musika eskaintza zabala, ardo dastatzea eta erakusketak

LARRAITZ ZEBERIO > ELGETA

Espaloia Kafe Antzokian prest du ikasturte berrirako programazioa. Urriaren 9an emango diote hasiera, 20:00etan, Pierola etxaren ardo dastatzearrekin.

Urriko programazioan musika eskaintza da nagusi. Ez da pailazo ikuskizunik, erakusketarik edo ikus-entzunezkorik faltako, baina ekitaldi nagusiak datorren hilean musika izango dute protagonista.

Danbaka musika lehiaketa-ren hirugarren edizioko bi kanporaketa jokatuko dira urrian.

Lehenengoa urriaren 17an eta hurrengoa 31n, biak ere 22:30ean hasita. 39 taldek eman dute izeña lehiaketan, baina 24k bakarrik izango dute leku. Sailkatuen zerrenda gaur bertan emango dute ezagutzera.

Danbakako kontzertuez gain, urriaren 25ean emanaldia egindo dute Espaloian Never Surrender, Enboskada, Ostiada Oi! eta Hell Beer Boys taldeek.

SOUL DOINUAK IRLANDATIK

Soul doinuak gustuko dituztendako gozamena izango da The

Commitments talde irlandarra bertatik bertara entzutea. Urriaren 18an izango dira Elgetan. Kalitate handiko taldea da, mundu mailan sona handikoa.

BESTELAKO PUBLIKOENDAKO

Udalak ere bi ekitaldi antolatu ditu Espaloian urrirako. Lehenengoa umeei zuzenduta; Poxpolo, Mokolo eta konpainiaren ikuskizuna, hain zuzen ere. Urriaren 19an izango da, domeka, 17:30ean hasita.

Ikus-entzunezkoa ere emango dute. Urriaren 29an izango da hori. *Euskal paisaiak eta euskal herritarrak* izenburupean diapositibak erakutsiko dituzte 20:00etatik aurrera.

ARAMAIO > KIROLA

Adinduei zuzendutako gimnasia ikastaroa urriaren 2an hasiko da kiroldegean

Goiena Sport kirol enpresako irakasle batzuk emango ditu eskolak; helburua da kirola egitea, baina, ondo pasatuz

ARRITXU BARRUSO > ARAMAIO

Udako oporrak bukatuta, kirola egitera itzultzeko garaia iritsi da. Aramaiko adindunek ez dute aitzakiarik kirolik ez egiteko, Udalak aurten ere mantentze gimnasia eskolak antolatu ditu-eta.

Eskolak urriaren 2an hasiko dira; ez dago aurrez izena eman beharrik, egun horretan bertan kiroldegean agertzearekin nahi-koia da. Eskolak martitzenetan eta egunetan izango dira 10:00etatik 11:00etara bitartean.

Goiena Sport enpresak antolatuko ditu escola horiek." Urte guztirako programa bat garatzen dugu. Lehenengo asteetan ariketa aerobikoak egiten ditugu, oinarri bat hartzeko. Behin hori eginda, indarra hartzeko giharrak lantzen ditugu" azaldu du Bixin Calzon Goiena Sport enpresako arduradunak. Baina dena ez da izango kirola egitea, ondo pasatu eta barre egiteko

denbora ere izango da-eta. "Gure helburu nagusia eskoletan ondo pasatzea da. Adindunak kirola egiten jarraitzea nahi badugu ezinbestekoa da eskolak diber-tigarriak izatea" dio Calzonek. Hori horrela jolasak ere antolatzen dituzte Goiena Sporteko arduradunek. Aurten badmitonean edo jockeyan jokatzeko aukera ere izango dute.

Sasoian egoteko gimnasia ez da nobedadea Aramaiko edadetuentako. Azken urtetan ere antolatu dituzte ikastaroak. Dena dela, aurten irakasle berria izango dute; Ainhoa Calle-jaren gidaritzapean jardungo dute gimnasia eskoletan.

LEINTZ GATZAGA > BIDEGORRIA

Iradokizunak aurkeztu dizkio Udalak bidegorriari

Bihar, irailak 30, bukatzen da iradokizunak aurkezteko epea eta Udalak hainbat egin ditu oraindik proiektua ikusi ez badu ere

MIRARI ALTUBE > LEINTZ GATZAGA

Bidegorriaren proiektuari iradokizunak aurkezteko epea bukatzen da bihar, martitzena, eta Gatzagako Udalak hainbat egitea erabaki du. Gatzagako tarteari dagokion proiektu zehatza ez du ezagutzen oraindik, baina Gipuzkoako bidegorriari dagokiona ikusi du eta aldaketa batzuk egitea proposatu gura du.

Bidegorria ez da pasatuko herritik proiektuaren arabera, eta Udalak proposatu gura du herritik bidegorrira inoko bidea egitea, automobilik hartu beha-

rrik ez izateko gatzagarrek bizi-kletan ibiltzeko. Bestalde, bidegorria trenbide zaharretik egi-tea aurreikusi dute "utzita dago-elako", baina Eusebio Villar alkatearen esanetan ez da hala, baserrietara doazen bideak egin dituztelako trenbidean. Hor-taz, konponbidea bila dezatela gura du: alboan egin beste bide bat edo dagoen bidetik biak -bizikletak eta automobilak- pasatzeko moduko tokia egin.

Erantzunaren zain geratu-ko dira eta proiektua aurkez-tutakoan erabakiko dute alega-ziorik jarri edo ez.



Trenbide zaharrean dago eginda Goierri auzora doan bidea.

MIRARI ALTUBE

ANTZUOLA > HIRIGINTZA

Igogailuak ipintzeko arauak onartuta

Hirigintza oztopoak kentzeko lanak ere diruz lagunduko ditu Udalak baldin eta igogailua ipintzeko lanen osagarri badira

IRATI AGIRREAZALDEGI > ANTZUOLA

Udalbatzak oinarriak onartu ditu herriko etxebizitzetan igogailuak instalatzeko emango dituzten dirulaguntzak arau-tekiko. Diruz lagunduko dituzte era berean, hirigintza oztopoak kentzeko lanak igogailua ipintzeko lanen osagarri direnean:

arrapalak, plataforma jasotza-leak, edo atarirako edo atari barruko desnibelak kentzea. Dirulaguntzak ematerakoan lehentasuna dute etxebizitzetako jabeen elkarteeek, baina onar daitezke elkarterik osatzen ez duten jabeen eskariak ere, kasua aztertu ostean.

Diruz lagunduko dira oraindik egiteke dauden lanak, eska-ririk aurkeztu ez delako edo bai-menik eman ez delako; bestela, 2008an amaitutakoak edo amaitzeko daudenak.

Eskaera orriak udaletxeko erregistroan aurkeztu behar dira lanen aurrekontuarekin. Aurtengoak abenduaren 31ra bitartean aurkez daitezke.

Udalak lanen jarraipena egingo du eta aurkeztutako proiektuan aldaketak egin eta horren berri eman ostean Uda-laren baimenik jaso ez arren aldaketak eginez gero, diru laguntza eten dezake.

Kirola



> FUTBOLA

BTLsek eta Bergarak 1-1 egin zuten erregional mailako derbian > **16**



> PILOTA

Muguruza eta Mendizabal San Migel txapelketako finalean > **18**

> ELKARRIZKETA

Eskoriatzako emakumezkoen saskibaloi taldeko entrenatzailea da Fernando Raso. Iaz moduan, aurten ere Lauko Finalera sailkatzea dute helburu > **20**



TALDE ARGAZKIA Arrasateko senior mailako taldea Ordiziaren kontrako lagunarteko partidua baino lehen ateratako erretratuau, Mojategin.

JOXE ELORTZA

ERRUGBIA > DENBORALDI HASIERA

Igor Isasiren mutilak gertu daude denboraldia hasteko

LAGUNARTEKOA

La Unicari errepasoa eman eta gero, Ordizia kontrario ona izan zen zapatuan

LIGA, DOMEKAN

Maritxu Kajoiren ostean, zapatuan, entrenatzeko erabakia hartu dute jokalariek

XABIER URTZELAI > ARRASATE

Denboraldi-aurreko azken norgehiagoko jokatu zuen ARTko senior mailako taldeak zapatuan, Ordiziaren kontra. Eta, Arrasatekoek txapelketa ofizialean jaruteko gerto daudela erakutsi zuten, nahiz eta badagoen zahetu -hiru jokalarik min hartru zuten, eta hori izan zen berri txarrena-.

Partiduari dagokionez Arrasatekoek bi aurpegi erakutsi zitzuzen: protestekin eta bestelakoekin nahastu samar ibili zirenekoa -Ordiziak ondo aproba txatu zuen hori-, eta jokoan kontzentratu eta markagailuari buelta eman zutenekoa -nahiz eta epaileak trabaren bat jarri-.

Entrenatzaileak berak aparteko ahalegina egin zuen lehen aipatutako alde txarra zuzenzen, eta denboraldian zehar horretan jardungo du; erabateko

kontzentrazioa eskatuko die jokalariei, eta taldearendako lan egiteko konpromisoa.

Beste urte batzuekin alderatuta, baina, Arrasatek gauza bat du ona, eta horren erantzule zuze-

na da Isasi bera: motibazioa. Entrenatzaile berriaren etorrekok berpiztu egin ditu jokalariak, denboraldi-aurreko lana osoagoa izan da, eta gehiagotan landu dituzte jokoari dagozkion

estrategiak: "Neure helburuetako bat denboraldian zehar motibazio horri eustea izango da. Baina, oso konprometituta dagoen talde bat aurkitu dut, eta oso pozik nago".

MARITXUREN OSTEAN, LANERA

Keinu bakarrarekin laburbildu daiteke Isasik dioena: Arrasatek datorren domekan hasiko du liga, Elorriion. Eta, Maritxuren osteko zapatuan entrenatzeko proposamena egin zien Isasik jokalariei. Bozketa egin, eta jokalariek baietz: "Biharamuna kentzeko eta taldea berriro elkartzeko proposatu nien zapatuan entrenatzea. Maritxu Kajoi ukitu ezin daitzeen zerbait da hemen, eta harritu egin nintzen jokalariek baietz esan zutenean. Harritu, eta neurri berean poztu".

Hori bai, grabatzeko moduko entrenamendua izango da.



Entrenatzaileei zuzendutako kurtsoa egin zuten zapatuan Mojategin bertan. X.U.

DERBIA > LEHEN ERREGIONAL MAILA

Puntu bana bergararen arteko lehen derbian

Cabanillasek egindako golarekin aurreratu zen Bergara; BTLsek penaltiz egin zuen banakoa

Bergarako alkate Agurne Barrusok egin zuen Ipintza inauguratzeko ohorezko sakea

BTLS
1-1
BERGARA

BTLS > Mondra, Berraondo, Alexander, Gallastegi, Muguruza, Salegi, Irizar, Corral, Bolinaga (Arkaitz, 71. min), Eraña (Elorza, 45. min), eta Jonathan.

Bergara > Jon, Josu, Julen, Nafarrate, Unai (Gorka, 84. min), Cabanillas (Beñat, 76. min) Otero (Crespo, 59. min), Urteaga, Ibañez (Balzategi, 59. min), Alzola eta Loyola.

Epailea > Javier Sarmiento jaunak egin zituen epaile lanak. Arazo handirik ez; ez zuen txartel hori asko erakutsi gura izan.

XABIER URTZELAI > BERGARA
Zelakoa den futbola. Partidua berdinduta, etxearen jokatzen zuen BTLS-ekoak Bergarakoak baino gusturago geratu ziren; eta, aldreibetan...

bes behar luke. Bain, talde bakotzak denboraldiari begira ze helburu duen jakitea funtsezkoa da poztasun eta nahigabeak uleritzeko, eta baita markagailuan atzetik joan eta azken minutuetan nork berdindu duen jakiteak ere. Horrela uler daiteke batzuen eta besteen aldartea.

JENDE MORDOA

Ipintzak sekulako itxura erakutsi zuen atzo arratsaldean; aspalditik ez du futbol zelai horrek horrenbeste jende batu, eta kanpotik ikusten denez futbolean egiteko ederto dago –nahiz eta jokalariek esan oraindik kaukoxa finkatu barik dagoela–.

Jokoari dagokionez, lehenengo minutuetan aurrean zegoen taldearekiko errespetua erakutsi zuten bi taldeek. Bergarako izan zuen baloi jabetza handiagoa, eta behin baino gehiagotan gerturatu...



Bergarako jokalariak BTLSkoari presioa egiten, Ipintzan batu ziren ehunka zaleren aurrean.

JOSETXO ARANTZABAL



Agurne Barruso alkatea, federazioko ordezkari Larreak lagunduta, sakean.

potarrek, baina BTLSek tarteka erakusten zuen Bergarak hobe zuela kontuz ibili.

GOLAK BIGARREN ZATIAN

Lehenengo zatia husnako berdinak tarekin amaitu zen, eta bigarrenean BTLSek hasieran baino joko erritmo handiagoa erakutsi zuen; hala ere, Bergarako erdilariek BTLSeko atzelarien bizkarra bilatzen jarraitzen zuten, aurrelariei paseak ezkereskuin emanez. Horrelako jokaldi batean etorri zen 0-1eko. Eskuin hegaleko jokaldian, atzerra-pasea jaso eta ate aurrean Cabanillasek 0-1eko egin zuen.

Aranbururen mutilek, baina, ez zuten amore eman. Berdinak tarekin aldeko azken ahaleginean euren aldeko penaltia lortu zuten; garbia, gainera. Gallastegik ez zuen penaltia bikain bota, baina golak berdin balio zuen.

PREFERENTEA > ALOÑA-TOLOSA

Aloñak hamar jokalarirekin egin zuen min gehien

Aloña 2-Oekoarekin erretiratzen zuten atsedenaldian, baina Tolosak estutu egin zuen ondoren (2-1)

Tolosak bi penalti hutsegia zituen; Aloñak hamar jokalarirekin jokatu zituen azken 25 minutuak

ALOÑA
4-1
TOLOSA

X.U > OÑATI
San Migel bezperako parrandari umore onarekin helduko zioten atzo gauean Aloñako jokala-

riek. Bazuten motiboa, ligako talde indartsuenetako bati erreparaso polita eman ziotelako, markagailuari begiratuta bai, behintzat. Bain, Azkoagainen egon zirenek ondo sufritu zuten partiduarekin, Tolosa behin eta berriro barkatzen ibili zen taldea izan zelako.

Lehenengo zatian ondo aurreratu zen Aloña. Iker Maiztegik egin zuen 1-0ekoa, zelai erdi ingurutik baloia astindu eta Tolosa-



Penaltian Oierrek ondo antzeman zuen Tolosako jokalariaren intentzioa.

PREFERENTEA

Mondrak berdindu eta UDAk irabazi

X.U > BERGARA
Etxetik kanpora jokatu dute asteburuan Mondrak eta UDAk. Azkargortaren mutilek puntu bat ekarri zuten Anaitasunaren zelaitik (1-1). Berdegunea oso egoera txarrrean zegoen –kategoria guztiak jokatu eta entrenatu egiten dute zelai horretan–, eta egoera horretan futbol gutxi eta joko gogorra. Pavonek egin zuen Mondraren berdinak tarekin.

UDAK GARAIPENA DONOSTIAN
Aretxabaletak, berriz, denboraldiko lehenengo garaipena eskuratu zuen zapatauan, EHU Vasconiaaren kontra. Gola egiteko erraztasuna erautsi zuen UDAk (2-4).

ko aitezaina baldar ibili zen –seguenrik eguzkiak egin zion traba–. Opari horren ostean Idigorasek egin zuen 2-0ekoa.

KONTRAERASOARI ESKER

Bigarren zatian Tolosak 2-1ekoak egin zuen eta larritasunak etorri ziren orduan. Emaitza horrekin Tolosak bi penalti izan zituen aldeko, baina oñatiarren aitezain Oier izan zen minutu horietan

partiduko protagonista; bota zizkioten bi penaltietako bat ere ez zen sartu –lehena zutoinera, eta geratu egin zuen bigarrena–. Igaratuak txartel gorria ikusi eta hamar jokalarirekin Aloña atzean sartu zen. Bain, kontraerasoan zelan jokatu behar den erautsiz, orduan egin zuten oñatiarrek min handiena. Elgarrestak (3-1), eta Asierrek (4-1) egin zituzten golak.



KUTXA BIZITZA-ASEGURUAK* **BABESA ASEGURATUA.**

Zuretarrak beti ongi estalita egotea pentsatzen duzun baino errazagoa da **Kutxa**
Bitzia Aseguruarekin*. Zure egoera pertsonal eta ekonomikoetara egokitzen
da. Eta konponbiderik egokiena da orain geroko kezkarik gabe bizitzeko.



zer nahi duzu bihar?

www.kutxa.net

 **kutxa**

Biharko
Vida y Pensiones
Compañía de Seguros y Reaseguros, S.A.

*Kutxa Bizitza-Asegurua, Biharko Vida y Pensiones, S.A.rekin kontratatua. Kutxa da Biharko Vida y Pensiones aseguru-etxearen banku-aseguruen operadore esklusiboa; honek baimena ematen dio hari Biharko aseguru-etxearekin eragiketak egiteko, eta Bitartekarien Erregistro administratibo berezian inskribatua dago C0654G20336251 zenbakirekin.

PILOTA > SAN MIGEL SARIA

Muguruza eta Mendizabal aurrez aurre

Zapatuan jokatu zituzten Oñatin San Miguel sariko finalaurrekoak; ibarrekoek aurrera egin zuten

San Miguel txapelketako finalak Bergarako eta Antzuolako zaleak batuko ditu zapatuan (22:30)

XABIER URTZELAI > OÑATI

Aitor Mendizabal antzuolarra eta Ander Muguruza bergararra aurrez aurre izango dira datorren zapatuan San Miguel sariko finalean (Oñatik Zubikoa pilotalekua, 22:30). Zapatuan jokatu zituzten finalaurrekoak, eta amateur mailako lehenengo partiduan Mendizabalek eta Linzoainek 22-17 hartzituzten mendean Baez eta Arrastoa. Norgehiagoka polita izan zen, batez ere Baezek eta Mendizabalek aurreko koadroetan izan zuten lehiagatik. Tantoa galtzen zuenak biraoa botatzen zuen ahopean, tantoa galtzeak min egin zuen seinale.

Mendizabal eta Linzoain hasieratik aurreratu ziren markagailuan (7-1), baina Antzuola-kokoa onartu moduan, behar baino gehiago nahastu zen ondoren: "Partiduaren erdialdean alde-bestuta ibili naiz, hainbat tanto galdu ditut eta kontrarioak geraturatu egin dira". Baina, oker horiek zuzendu eta 16-16ko berdinaketa izan zen partiduko azkena (22-17). Bigarren partiduan, berriz, Muguruzak eta Bengoeetxek erraztasun handiagoa izan zuten Amantegi eta Lopez mendatzeko (22-14). Egia da Amantegik ez zuela aurrean zorte handirik izan, hirutan bota zuelako



Ander Muguruza bergararra pilota astintzen, atzelari biak begira dituela.

JOSETXO ARANTZABAL

pilota txapara. Eta Muguruzak egindako lanarekin batera, Bergarakoaren atzelari Bengoeetxea eibartarrak ere seguru jardun zuen.

GAZTE MAILAN

Amaturrek baino lehenago jokatu zuten gazteek, eta lehenengo partiduan Arrieta-Galartza bikoteak egin zuen aurrera –partidu

ederra izan zen, oso parekatua-. Bigarren norgehiagokan Arrietak min handia egin zuen sakez (22-9); Galartzarekin batera izango da finalean.

Salneuri gomendatua Penintsulan eta Balear uharteetan auto honentzako: Focus Coupe Trend 1.6 TDCi 90 ZP. VIVE Plus plana, BEZA, garraioa, sustapeneko deskontua, matrikulazio zerga eta kontzesionarioaren ekarpena barne. Eskaintza hau stockean dauden autentzat da. Hilabete bukaera arte baliagarria. Eskaintza hau ez da baliagarria langile eta flotentzat. 8.000 kilometrori dagozkion erregaiaren 450 euroak azken prezioan deskontatuko dira. Ikusten den modeloak: Focus Hirvonen serie berezia. Focus gama, batez besteko kontsumoa: 4,3-7,1 l/km. CO₂ igorpenak: 114-169 g/km.

FORD FOCUS TDCi, 100 kilometroan 4,5 litro.

Orain Ford-en VIVE Plus planarekin **14.900 eurogatik guztiz ekipatuta dagoen autoaz goza ezazu.**

Gainera, aurreztu ezazu 800 kilometrorako erregaiia

FordFocus TDCi:
ESP • TCD • ABS • Bizona aire girogailua
CD-irratia 6000 • Abiadura Kontrola.

MUGARRI AUTOAK
Araba Etorbidea, z/g
ARRASATE

Feel the difference



TXIRRINDULARITZA > ARETXABALETAKO SAN MIGEL SARIA

Seguros Bilbao taldeko Ruben Palaciosendako San Migel saria



Aretxabaletako proban 38 txirrindulari izan ziren irteeran.

XABIER URTZELAI

Podiumeko hiru tokiak Seguros Bilbao taldeko txirrindulariendako izan ziren atzoko proban

Ruben Palacios eta Gorka Izagirre taldekideak ihes eginda iritsi ziren Aretxabaletako helmugara

EDU MENDIBIL > ARETXABAleta

Seguros Bilbao taldeko txirrindulariak sasoi puntuari eutsi diote denboraldiaren amaieran. Atzo arratsaldean Aretxabaletan jokatutako proban jaun eta jabe izan genituen. Podiumeko hiru tokiak beraientako izan ziren. Ruben Palaciosek irabazi zuen San Migel sariaren 26. ekitaldia, Izagirre taldekideari helmugan gainditu ostean. Handik minuto eta 45 segundora bederatziz txirrindulariz osatutako taldea iritsi zen. Jose Luis Legasa izan zen taldeko azkarrena, taldetxoari denbora emanet.

EGURALDIA LAGUN

Aretxabaletan jokatutako proba Euskalduna txapelketarako puntuagarria zen. 23 urtetik azpiko txirrindulariek 108 kilometroko ibilbidea bete behar izan zuten. Gatzagako gaina izan zen mendate bakarra. Eguraldia lagun izan zuten txirrindulariek atzo.

Orain arte gazte mailakoa izan den San Migel saria amateur mailakoa bihurtu da aurten. Aretxabaleta Kirol Elkarteak antolatu zuen proba. Inazio Garro alkateak eta Aretxabaleta KEko Josu Izagirrek banatu zituzten sariak atzo.

> OÑATI
Domekako pilota jaialdirako sarrerak salgai eguzzenetik

Domekan, urriaren 5ean, pilota jaialdia izango da Oñatin, 17:00etan: Capellan eta Merino I.a Galarza V.a eta Arrutien aurka eta bigarren partiduan Titin III.ak eta Lascurainek Gonzalez eta Pascual izango dituzte aurrez aurre. Sarrerak urriaren 1etik 3ra bitartean Kultur Etxean salgai, 20 eurotan. Egunean bertan Zubikoako leihatilan izango dira salgai.

> ESKUBALOIA
Ford Mugarrak Portugaleten irabazi, 20-28

Ford Mugarrak eskubaloitako garaipen batekin hasi du Euskadiko liga. Zapatuan, Portugaleten jokatutako partiduan, 20-28 irabazi zuten arrasatearrek. Partidu osoan zehar markagailuan aurrezki izan ziren Edu Orgazaren mutilak. Hurrengo jardunaldian Egia hartuko dute, etxearen. Domekan jokatuko dute Ford Mugarrak eta Egiak.

PILOTA > SAN MIGEL TXAPELKETA

Mikel Gallastegi eta Aitor Alkorta irabazole Angiozarren

Angiozarko jaien barruan, pilota txapelketaren bigarren ekitaldiko finalak jokatu ziren atzo

E.M. > BERGARA

Mikel Gallastegi *Frantxi-k* eta Aitor Alkorta *Azpeitxi-k* irabazi zuten Angiozarko San Migel pilota txapelketako bigarren ekitaldia. Finalean Enrike Marzanari eta Aitor Osari irabazi zieten, 22-10. 2-4 galtzen ari zirenean, Aitor Osa Igor Agirrezabal ordezkatu beharrean egon zen, azken honek zaintiratu bat izan ondoren. Txapeldunek errazago irabazi zuten.

JENDE ASKO ARBIASKA

Jende dezente batu zen Arbiaskako pilotalekuaren. Hirugarren tokian Andoni Fernandez de Lezea eta Ugaitz Ugarte sailkatu ziren, Beñat Luizaristiri eta Iñigo Larrañagari 18-9 irabazita. Gaztetxo mailan, Iker Otaduik 16-5 irabazi zion Aritz Basterra eta nesketa Eneritz Arizmendiarreria eta Maite Gallastegi izan ziren txapeldunak



Marzana, Osa, Basterra epailea, Frantxi, Azpeitxi eta Mila Elortza, atzo. E.M.

> PILOTA
Elgetako pilota txapelketarako izenematea zabalik

Helduei zuzendutako bina-kako pilota txapelketa urrian hasiko dute Elgetan. Bi mai-la bereiztuko dituzte aurten: 40 urtetik beherakoak eta adin horretatik gorakoak.

Izenematea aste honetan zehar egin daiteke. Interesatuek Fernando Zenitagoiaren regana jo dezakete izena emateko. Esan bezala, federa-tu gabeko zaleei zuzendutako txapelketa da Elgetako eta aurki hasiko da.



Erosten jakin:
ZURE FAMILIAREN ZAT ONENA AUKERATU

 **EROSKI**
Grupo Eroski Erosten jakin

Fernando Rasok Eskoriatzako senior mailako saskibaloit taldearen ardura hartu du. Raso beti-

danik egon da Eskoriatzako elkarteari lotuta; lehenengo jokalari bezala eta orain, entre-

nataile bezala. Saskibaloia gus- tuko duela argi dago. Horregatik, jendea animatu gura du

nesken partiduak ikustera joateko. "Neskek ere sartzen bada- kite!", esan du barrezka.

Fernando Raso > Eskoriatzako saskibaloit entrenatzalea

"Emaitzei asko begiratzen zaiolako erantzukizun handiko postua da"

ARANTZAZU EZKIBEL > ESKORIATZA
Ardura handia dauka Rasok aurten- go denboraldian, baina, ez da baki- rrik egongo; Inma Murilloren lagun- tza izango du entrenatzale lanetan. Senior mailako nesken entrenamenduan harrapatu dugu, Intxaurtxeta kirolegian.

Erantzukizun handia da senior mailako nesken taldearen ardura izatea?

Bai, batez ere emaitzei asko begiratzen zaielako duka erantzu- kizuna. Bestalde, denborari begiratzen badiogu, astean hiru egunetan entrenatzen dugu eta gero gainera aste bukaeran par- tidua izaten dugu. Hortaz, ardu- ra eta erantzukizuna eskatzen duen postua da.

Aurten, baina, laguntzailea izango duzu.

Bai, Inma Murillo eta biok ibili- liko gara. Gainera, Inma orain arte jokalaria izan da; hortaz, ia neska guztiek ezagutzen dituela esan genezake.

Nolako taldea duzue aurten?

Iazko talde bere dugula esan de- zakegu. 11 jokalari ditugu; lau berriak dira eta beste guztiek iazkoak dira.

Taldea zuzentzeko ilusioz zaudete?

Bai, gure helburua lauko finalkraera iristea da. Horretarako, lehenengo lauen artean sailkatu behar gara. 15 talde gara, bi multzotan banatuta. Maiatzean jokatuko da lauko finala. Orain bi urte Eskoriatzan jokatu zen, baina lehenengo partiduan kan- poratu gintzutzen. Iaz ere, lehenengo kanporaketan kanporatuak izan ginan. Partidu bakarra jokatzen da eta hori irabaziz gero, fina- lerako txartela lortzen da.

Ligan lan txukuna egin ostean, zergatik kanporatzen zaituztete lauko finala lehenengo kanporaketan?

Zergatik? Iaz, esaterako, Añorga gu baino talde hobia izan zelako. Lehia parekatua izan zen iazkoia, baina aurkariek oso egun ona izan zuten eta oso eraginkorrik izan ziren saskiratzeak egiterakoan. 70 puntu inguru sartu zituzten eta hori gu bezalako mai- la batean oso puntuazio alta da.

Ligari begira, zein izango da zuen aurkari gogorrena?

Nire ustez, talde gogorrena Añorga izan daiteke. Iaz, finaler-



Fernando Raso Intxaurtxeta kirolegian entrenamendu saioa hasi aurretik, egubakoitzean.

JOSETXO ARANTZABAL

dia irabazi zigun taldea, hain zuzen. Zazpi taldez osatutako multzoan izango gara; maila berean, beste multzo bat egongo da, zortzi taldez osatua. Bi multzo- etako onenek beste ligaxka bat jokatuko dute eta hor lehenengo geratzen direnak sailkatuko dira final-fourra jokatzeko.

Eskoriatzako neskek zelako jokoak egitea gustatuko litzai- zuke?

Taldearen teknika hobetzea gustatuko litzaidake; baita, jokoaren abiadura ere. Jokalariek oldarkortasun gehiagorekin joka- tu behar dute eta saskiratzerako orduan ere eraginkorragoak iza- tea falta zaigu. Orain, bereziki, banakako teknika gaude lantzen; modu horretan, saskiratze kopuru- rua igoko dugula uste dut.

Orain urte batzuk, Euskadiko mailan zeundeten. Helburua maila hori berreskuratzea da?

HELBURUA
"Aurtengo taldearen helburua final-fourra jokatzeko sailkatzea izango da"

JOKOA
"Taldearen teknika hobetzea gustatuko litzaidake; baita, abiadura ere"

BERTUTEA
"EZ zait entrenamenduetan denbora galtzea gustatzen"

Ez, oraingoz ez dugu horrela- korik proposatu. Mailaz igo ahal izateko taldea oso lehiakorra izan behar da; eta, orain ez dugu horre- lakorik. Jokalari asko, orain ez bada hemendik urte batzuetara, hiriburura joango dira ikastera. Hortaz, epe motzera ze talde izan- go duzun jakitea zaila izaten da.

Orain etorkizun handiko jokalaria den neska batek, behar- bida, hemendik bi urtera saski- baloia uzten du; hortaz, ez dago jakiterik. Mailaz igotzeko, talde- dea lehiakorra izan behar da.

Denboraldiaren arabera, eta final-fourra irabaziz gero, orduan pentsatuko genuke ea maila berrian mantentzeko moduko taldea dugun edo ez.

Alde handia dago gazteekin edo nagusiekin lan egiterako orduan?

Bai, oso ezberdina da. Senior mailako talde bat hobetzea zaila da; egiten duzun aurrerapena

oso txikia da. Kadete mailako talde batean, osteria, hobekuntzak askoz handiagoak dira. Kadete mailan ikasten dute tek- nikak; hortaz, aurrerapausoak epe motzera ikusten dira. Senior mai- lan erakutsi beharrik ez dauden hainbat gauza erakutsi behar dira kadete mailan. Senior mai- lan, beste teknika batzuk lantzen dira: adibidez, joko sistema. Gain- era, senior mailako jokalariari bere posturako espresuki era- kusten diozu, eta kadete mailan ez da horrelakorik egiten.

Entrenatzalea bezala, ze akats eta ze bertute dituzu?

Uste dut hori oso subjektiboa dela eta inguruau dauden beste batzuk esan beharko luketela. Nik, adibidez, asko eskatzen dut. Uste dut hori dela dudan gauza on bat. Gainera, ez zait entrena- menduetan denbora alperrak gal- tzea gustatzen. Akatsak, berriz, mordoa izango ditut. Galde- tu nire jokalariei eta ziur asko esan- go dizutela.

Nola dago saskibaloia Deba- goienean?

Mutiletan oso ondo dago. Arrasateko taldea ikusi besterik ez dago. Pena izan da azken momentuan mailaz igotzerik ez izatea. Polita izango litzateke ibar- rean EBA mailako talde bat iza- tea. Nik uste dut zaletasun han- dia dagoela. Baina, nire iritziz, neska-mutiko gazteak oso lanpe- tuta daude eta ez dute denbora- rik saskibaloian jokatzeko. Arra- tsalde guztia aktibitatez josita izaten dute.

Baina, uste dut zaletasun han- dia dagoela eta, gainera, azkenal- dian, gero eta zale gehiago dau- dela. Osasun ona du saskibaloia- kide.

Eskoriatzan, egunotan, Eus- kal Kopa antolatu duzue.

Elkarrean federazioarekin elkarlanean antolatzen dituen ekintzak dira. Argi ikusten da bai Euskal Federazioan eta bai Gipuzkoako Federazioan ere begirunea digitela. Hala, azkenal- dian hainbat ekitaldi antolatzeko ardura izan dugu; Euskal Kopa, adibidez, hirugarren aldiz antolatu dugu.

Urriaren 15ean jokatuko da Euskal Kopako finala; hortaz, jendea anima dadila Eskoriatza- ra etortzera. Gainera, laster hasi- ko gara gure taldeen jardunaldiekin eta orduan zaleen babesera ere ezinbestekoa izango dugu.



> ARGAZKI LEHIAKETA

Han eta hemen irakurleek udan ateratako irudiak, argazki lehiaketaren azken txanpan > **22**



> ARGAZKI LEHIAKETA

Urriaren 17tik aurrera Elgetako Espaloian joko duten musika taldeen aurkezpena > **25**



> ZINEMALDIAN

Imanol Gallego kazetari arrasatearrarekin amaitu berri den Zinemaldiaz jardun dugu > **32**

Bosgarren aldiz, 'Bizkor' izan zen finena Oñatin

Hamabi txakur lehiatu ziren denera 49.

Oñatiko Nazioarteko Artzain Txakurren Txapelketan

2003tik behin bakarrik geratu da 'Bizkor' garaipenik gabe

TXOMIN MADINA > OÑATI

Beste behin, Santa Lutziako belardiak izan ziren atzo Oñatiko Artzain Txakurren lehiaketaren 49. edizioko eskenatokia, eta Euskal Herriko, Kataluniako eta Frantziako txapelketetan txapeldun edo azpitzapeldun izandako hamabi txakurrek hartu zuten parte bertan.

Hiru proba egin behar izan zituzten denera, eta proba bakotzean okerren ibilitako txakurrak kanporatzen joan ziren. Hala, lehen probaren ostean, zortzik bakarrik jarraitu zuten lehia,

eta hirugarren eta azken frogan, lau izan ziren garaipena lortzeko borrokatu zirenak.

Azken emaitzak ikusita, lehen probatik igarri zitekeen zeintzuk ibiliko ziren lehiaketa irabazteko borrokan, izan ere, lehen momentutik nagusitu ziren: Aresoko Antonio Alustizaren *Tiki*, Orozkoko Enrike Mendigurenen *Riki*, Abadiñoko Kepa Ardanazaren *Izar* eta Ilarduiako Joxe Mari Jauregiren *Bizkor*.

BERRIZ ERE, BIZKOR ONENA

Hirugarren proba izan zen behin betiko sailkapena erabaki zuena. Ordura arte, *Bizkor* lehen postuetan ibili arren, beste hiruren atzetik zebilen. Baino artaldea eskortan sartzen eta berriz ateratzen egindako lan bikainaren ostean, puntueta beste denak gainditzea lortu zuen.

Azkenean, *Bizkor*-ek 400 puntu lortu zituen; *Izar*-ek 390, *Tiki*-k 326 eta *Riki*-k 324.

MARKA HISTORIKOA

Atzoko garaipenarekin, bederatzi urte dituen eta arra den *Bizkor* eta bere jabe Joxe Mari Jau-

regi Oñatiko Artzain Txakur Txapelketaren historian letra larritz sartu ziren. Izan ere, orain arte inork lortu barikoa lortu zuten, lehiaketan bost alditan garaile izatea: 2004an kenduta, 2003az geroztik eurek eraman dituzte txapel guztiak.

Irabazleek, Nestor Basterretxearen eskultura bat eraman zuten garaikur gisa, baita 260 euro eta hainbat opari ere.

ANTOLATZAILEAK, GUSTURA

Joxe Mari Bengoa txapelketako antolatzailea gustura zegoen aurten txapelketaren mailarekin, bere esanetan, maila oso altau izan baita.

Bengoak onartu zuen urtetik urtera ikusle gutxiago biltzen dela txapelketan, baina baikor agertu zen era berean, bere ustez, gerturatzent diren ikusleak benetan txapelketa bizi eta ezagutzen dutenak baitira.

Atzoko txapelketan zehar gainera, artzain munduan egindako lanagatik Oñatiko Udalak ematen duen Agirrebalzategi saria eman zioten Pere Ambros artzain kataluniarrari.

Joxe Mari Jauregi > Aurten txapelduna

"Txapelik onena 'Bizkor'-entzat laztanak dira"

T.M. > OÑATI

Txakur berarekin bosgarren txapela eskuratuta, Oñatiko Artzain Txakurren Txapelketako marka guztiak hautsi ditu Joxe Mari Jauregik. Aurten maila altua egon dela eta garaipena zaila izan dela adierazi arren, Oñatikoa asko gustazen zaion lehiaketa dela gaineratu du.

Zer sentitzen du batek behin proba irabazita?

Poz handia, asko kostatako garaipena izan da eta.

Nola ikusi duzu gaurko proba?

Aurten maila oso altau izan da, eta horrek gauzak asko zaildu ditu. Denbora guztian besteak baino pixka bat atzerago egon naiz, baina tira, azkenean zuen-tza lortu dugu. Momentu batzutan urduri samar egon naiz, eta txakurrak hori igarri egiten du. Baino lan ona egin du *Bizkor*-ek.

Bosgarren garaipena lortuta, Oñatiko txapelketako orain arteko markarik onena lortu duzue. Harro egotea da hori.

Bai, horixe esan digute. Orain arte egondaratzanik lau aldiz txapelketa irabaztea lortu duenik, baina txakur berarekin bost aldiz garaile izatea lortu duen bakarra omen naiz.

Nola prestatzen dituzu Oñatikoa moduko txapelketak *Bizkor*-ekin? Entrenamendurik egiten duzue?

Ni artzaina naiz, eta artaldearekin aritzen naiz egunero: ardiak ekarri, bildu, larreetara eraman... Eguneroko lana izan ohi da gure entrenamentua. Horrekin nahikoa dugu.

Zer iruditzen zaizu Oñatiko lehiaketa? Gustoko al duzu?

Bai, niretzako proba oneña da, beti izan dut gustuko. Ez dakit zergatik; akaso aldapak dituelako, edo urru-ti samar dagoelako...

Zuk zeuk, irabazole moduan, sari eta opari ugari jaso dituzu... *Bizkorrek* izango du saririk?

Bizkor-ek lanarekin gozatzen du gehienbat, eta gero jasotzen dituen laztanekin. Horrela egoten da pozik, hori da beretako txapelik onena.



TXAPELDUNAK Joxe Mari Jauregi eta *Bizkor* podiumean.

JOSETXO ARANTZABAL



UDAKO ARGAZKien ASTELEHE

Argazki guztiak fotoblog honetan:



TXALUPA. Islako txalupa zahar honek gozatzen duen egunsentietako bat. Argazki hau abuztuan Islan ateratakoa da..
/Argazkia: Xabier Arabaloza /Oñati



MUSEO VATICANOko ESKAILERAK. Lau ordu igaro nituen museoan, mireatuta bukatu nuen baina eskailera hauek txunditura utzi ninduten. /Argazkia: Nekane Garai /Arrasate



HABANA. Habanan (Kuba) ateratako argazkia. *El Cañonazo* zo famatua ikustera gindoazela, San Carlos de la Cabañaako gotorlekua aurrean genuela, itsasoan eguzkia nola sartzen zen ikusteko aukera izan genuen.
/Argazkia: Mikel Arenaza /Arrasate



TXALUPAN. Granadan, Nikaraguako lakutik txalupan dabiltzan bikote bat ageri da, bertako irla txikien ingurutik. /Argazkia: Maddalen Olabarria /Bergara



HIMBA TRIBUKO EMAKUMEAK. Namibian ateratakoak dira aurtengo udan. Himba tribukoak dira argazkietan ageri direnak. Emakumeek, eguzkitik babesteko, okre eta gantzez igurtzen dute gorputza. /Argazkia: Jone Lezeta



DUBROVNIK. Herria inguratzen duen harresitik Dubrovnik-eko alde zaharraren bista. /Argazkia: Aitziber Soriano /Arrasate




BELAUNTZIA ETA FAROA. Belauntzia Ribadeoko (Galizia) itsasmutur parean porturako bidean. /Argazkia: Iñigo Igartza /Bergara



FUSETA. Ria Formosa (Portugal) parke naturalean (Urdaibai moduko bat) kokatzen den herri honetako ilunabarrean, gurekin kanpinean zegoen umeari egindako argazki bat. /Argazkia: Oier Fuentes /Arrasate



NO COMMENT. Malagatik Madrilerako bidean autopistan atse-tenetan den guneko tabernabaten komunetan ateratako argazki den. Mesedez, ez garbitu oinak konkretan irakur daiteke karbitxia. /Argazkia: Jorge Bengoa /Aretxabaltea



TERRAZAN ILUNABARREAN. Egunak ematen dituen azken argiak begiratzeten topatu nuen laguna, apartamentuko terrazan. Ibizan hartuta, uda honetan. /Argazkia: Mikel Maidagan /Arrasate


NEKO GOIENKARIA IV. LEHIAKETA



www.goiena.net/blogak/argazkiak



UR AZPIAN. Buzetzen ginela aroak egitea okurritu zitzai-gun eta argazki hau ateratzea lortu genuen. /Argazkia: Olaia Zengun /Bergara



PERITO MORENO. Argentinako glaziar ikusgarria.
/Argazkia: Emilio Sologaistoa



PIRAGUAK. Bidarrai inguruan ateratako argazkia. /Argazkia: Enrike Jauregi /Bergara




PARADISUA URETAN. Srinagar. Kaxmir. India. aurtenko uztaila. /Argazkia: Karmelo Altuna /Oñati



FIAT PANDA. Argazkia Abuztu erdialdean, Palermo hirian, eta konkretuki Fiat Panda baten barnean ateratakoa da. Gidaria nire lagun siziak bat da. /Argazkia: Ugaitz Iturbe



MAROKO. Dadesko haranian, dromedarixua lagun geunkala, bertako tuaregakin buruan ta ibili munduan! /Argazkia: Mai-te Aristegi



TOUR DE FRANCE. Beste "Tour de France" bat. Yssigeac (Dordoña). Aurtenko abuztua. /Argazkia: Elisabet Narbaiza /Oñati



ILUNABARREAN NABIGATZEN. Guatemala ko Flores herrian, 2007ko abuztuan ateratako argazkia. Ilunabarrean nabigatzan. /Argazkia: Larraitz Vázquez



HAIZEAREKIN JOLASTEN. Garaion egindako kometa lehiaketan. 2007ko urrian. /Argazkia: Ane Arregi /Arrasate

Baldintzak:

- Udako argazkiak izan behar dira: aurtenkoak edo beste uda batekoak. (Argitaratu gabeak)
- Debagoineneko edozeinek parte hartu ahal izango du (ez da adin mugarrak izango).
- Argazkiak aurkeztu ahal izango dira paperean edo digitalizatuta.
- Bidali ahal izango dira e postaz argazkiak/goiena.com helbidea edo Goienaren egoitzaren batera ekarri.
- Argazkiak jasotzeko azken eguna, 2008ko irailaren 17a.

Sariak:

- 1. saria: Olympus E-510 reflex argazki kamera digitala Bergarako Kiñu argazki dendaren eskutik.
- 2. saria: Astebukaera bateko egonaldia bi pertsonentzat, Arrasate Bidaia-en eskutik.
- 3. saria: bi pertsonaren dako afari edo baziaria Leintz Gatzagako Gure Ametsa jatetxeen. .



Babeslea:



Laguntzaileak:



GURE AMETSIA
JATETXEA





NY. Eztei bidaian, New York-eko askatasun estatuari ilunabarrean ateratako argazkia.
/Argazkia: Nora Martin /Arrasate



OPORRETAKO AZTARNAK. 2008ko abuztuan atarata dago, St. Gilgen hondartzan.
/Argazkia: Leire Pagaldai /Eskoriatza



TXAKURRAK HOTELEAN. Txakurrak ere oporretara joaten dira, ez jabeak bakarrik. Hemen ditugu bi lagunak hoteletik begira. /Argazkia: Igor Arizmendiarieta /Elgeta



UMEAK. Miseria ugari aurkitu dezakegu herrialde honetan. Hori bai, umeen poztazun eta irribarrea beti dago nabarmen... /Argazkia: Ikerne Galdos /Arrasate



ARTEAGA GAZTELUA. Urdaibaiako bihotzean kokatutako Arteaga Gaztelua. Etxetik gertu dugun txoko eder batean. /Argazkia: Maite Argotia /Arrasate



MASKARAK. Abuztuan Venezian hartutako argazkia da eta bertan tipikoak diren maskarak dira protagonista. /Argazkia: Zuriñe Velez de Mendizabal /Arrasate



UR GARDENAK. Kakueta paraje zoragarrian dagoen ibaiaren ur gardenak. /Argazkia: Mikel Aranzabal /Aramaio



NATURA ETXE ATARIAN. Argentinan kale batetik paseatzent gindoazela aurkitu genuen arkitektura eta naturaren arteko oreka gordezen duen irudia... /Argazkia: Kike Dapena /Arrasate



BIDEA. Cabo de Gata (Almería) aterata ekainean. Hondartzako bidea markatzen duten hesitik gainetik ibiltzen...
/Argazkia: Itziar Maidagan /Arrasate



HONDARTZAN SIESTA. Orain lanean hasiak garela, nork ez du faltan botatzen udan sombrila azpian botatzen ditugun siestak? Argazki hau San Vicente de la Barquera-ko hondartzan aterata dago. /Argazkia: Irati Ugarte /Ofici



TEIDE. Argazki hau 2008ko abuztuaren 26an ateratu zuen Tenerife irlako Teide sumendiaren ingurueta. Orain badakit zergatik esaten den mendiek gainditu egiten gaituztela. /Argazkia: Uxue Odriozola

KULTURA > DANBAKA III. MUSIKA LEHIAKETA

Elgetako Espaloian zuzenean joko duten 23 taldeen izena aukeratu du epaimahaiak

Publikoaren esku utzi dute 24. taldearen aukeraketa; bozkatzeko epea egubakoitza eguerdian amaituko da

Urriaren 17an hasiko da lehiaketa Elgetako Espaloian; finala urtarrilaren 16an izango da toki berean

MIRIAN BITERI > BERGARA
Danbaka Musika Lehiaketak aurrera pausuak ematen dihar- du. Jakina denez, 24 taldek parte hartuko dute horretan; aurreko edizioan baino lau gehiago. Astebetetz abestiak entzuten egon ostein, joan den egubakoitzean 23 sailkatuen zerrenda aukeratu zuen epaimahaiak. Publikoaren ardura izango da, bestalde, azkena aukeratzea.

Danbakako koordinatzaile Iker Barandiaranek gogora eka- rri du hirugarren edizio horretan, guztira, 39 talde aurkeztu direla: "Bakotzak hiru kantu aurkeztu behar izan zituen eta horiek entzu- ten eta aukeraketa egiten egon gara". Aurtengo berritasun bat da esparrua zabaldu egin dela eta Debagoienakoek ez ezik, Debaba- reneko eta Durangaldeko talde- ek ere parte hartu ahal izan dute- la. Aurkeztatuko artean, 24 bai- larakoak eta gainontzeakoak esandako beste eskualdetakoak direla gogorarazi du.

Barandiaranek azaldu du Debagoieneko hamairu talde aukeratu dituztela Elgetako Espaloian zuzenean jotzeko: "Badaki- gu horrek hainbat talde kalean uztea eragin duela. Pena da kan- poan uztea baina, aurten, espa- rrua zabaltzea erabaki dugu eta hori kalitatean igarriko dela iru- ditzen zaigu".

Era berean, estilo askotariko taldeak aurkeztu izan direla azpi- marratu du: "Horrek erakusten



Ni Neu taldeko bakarlari Aitor Sologaistoa.



Adi Holden talde berargarra ere lehiaketan parte hartuko du.

GOIENKARIA



Irudian, Damudot taldeko Poluto, bateria.

GOIENKARIA

du Debagoienean eta inguruko bailaretan musika ona egiteaz gain, mota askotakoa egiten dela. Hori oso positiboa da". Gainera- tu du, horren harira, epaima- haia saiatu dela ahalik eta musika estilo gehien aukeratzen.

Barandiaranen esanetan, metala, heavya, rocka eta punk- rocka estiloak ere oso presente daude hirugarren edizio horretan. Horretaz aparte, nabarmen- du nahi izan du bitxikeriak ere badaudela; tartean, folka jotzen duen Flipin Folk talde ermuarra eta eibartarra.

AURREKO EDIZIOKO HIRU TALDE
Bakarlariak ere ez dira falta aurtengo musika lehiaketan, hala nola, Igor San Juan aretxabale- tarra, Los Viernes al Sol taldeko Ihigo Irizar antzuolarra eta Mery May taldeko Maria Fagan arra- satearra. Azken bakarlari hori- bitan igoko da Espaloiko agerto-

kira, Mery May eta Foxy Boxxi taldekin. Partaide batzuek, gainera, Danbakan esperientzia dute, aurreko edizioan parte har- tu dute-eta. Hiru dira: Scam eta Igor San Juan aretxabaletarra et The 5 Twisters arrasatearrak eta The 5 Twisters arrasatearrak.

Esan bezala, publikoak auke- ratuko du 24. taldea. Sailkatu ez diren taldeen fitxa eta abestiak dagoeneko www.danbaka.com webgunean daude ikusgai. Bost eguneko epea dago bakoi- taren gustukoak den taldeari webgune- aren bidez botoa emateko; gaur, astelehen, hasi eta egubakoitza eguerdiko hamabiak bitartean. Urraren 6ko ASTELEHENeko GOIENKARIAn emango da horren berri.

Urraren 17an emango diote hasiera lehiaketari, Elgetako Espaloian. Kontzertuak eguba- koitzetan izango dira, 22:30ean. Egun horretako emanaldi horie- titik urtarrilaren 16ko finala

bitartean, bost kontzertu gehia- go izango dira toki berean.

Sariari dagokionez, Arrasateko Shot! grabazio estudioan diskoa grabatu eta Gaztelupeko Hotsak diskotxearekin kalean izango du talde edo bakarlari onenak. Hala ere, irabazlea Deba- barrena edo Durangaldegokoia izango balitz, Debagoieneko one- nak ere sari berbera izango luke.

DATUA

39
TALDE

Lehiaketan 39 taldeek eman dute izena: Debagoieneko 24 eta Durangaldeko eta Debarreneneko gainontzeko 15. Epaimahaiak aukeratu- en artean, hamairu bailarakoak dira.

ESANAK

"Askotariko estilo- ko taldeak aurkeztu dira. Horrek erakusten du Debagoienean eta inguruko bailaretan musika ona egiteaz gain, mota askotakoa egiten dela. Hori oso positiboa da"

Iker Barandiaran > Koordinatzailea

Taldeak

Adi Holden (Bergara)
Army (Zornotza)
Barua Banda (Eskoriatza)
Bitter Honey (Arrasate)
Brankan (Berriz-Markina)
Damudot (Mallabia)
Flipin Folk (Ermua-Eibar)
Foxy Boxxi (Arrasate)
Hilbete (Durango)
Igor San Juan (Aretxabaleta)
Lord Witch (Bergara)
Los Viernes al Ron (Antzuola)
Mery May (Arrasate)
Ni_neu (Eibar)
Norman (Eibar-Ondarroa)
Rock Privado (Oñati-Donostia)
Scam (Aretxabaleta)
The 5 Twisters (Arrasate)
The Motherfuckers (Arrasate)
The Wet Band (Mutriku)
Tuesday Evenings (Durango)
Turbohit (Bergara)
Ymote (Abadiño)

Kontzertuak

Urriak 17, egubakoitza
Urriak 31, egubakoitza
Azaroak 14, egubakoitza
Azaroak 28, egubakoitza
Abenduak 12, egubakoitza
Abenduak 19, egubakoitza
Urtarrilak 16, egubakoitza

Kontzertu guztiak Elgetako Espaloian izango dira, 22:30ean

KONTUAN HARTZEKOAK

Kontzertuak osorik grabatuko ditu Goiena Telebistak

Goienak jarraipen zabala egingo du hedabide guztieta. Aurreko edizioetan egin den moduan, esaterako, GOITBK osorik grabatu- ko ditu kontzertuak. Horretaz aparte, Durangaldeko eta Debaba- reneko tokiko aldizkariek eta Tokiko Telebisten Elkartearak Danbaka jarraituko dute.

Dagoeneko kalean da Danbakako bigarren edizioaren DVD-CDA

Danbakak eta Gaztelupeko Hotsak bigarren edizioaren gaineko DVD- CDA atera dute. Parte hartzutu zuten 20 taldeen kanta bana, elkarrizketak, adituak iritzia, argazkiak eta lehengo edizioko Sharon Stoner taldearen ikus-entzunezkoa ditu. Goienan eta ohiko saltokietan eros daiteke, 13 euroren truke.

Kamiseta berriak aterako dituzte bigarrenez

Hirugarren edizioko musika lehiaketarako kamiseta berriak egingo dira. Orain dela bi urte, bigarren edizioan aterako ziren lehen aldiz. Danbakako koordinatzaile Iker Barandiaranek aurrera- tu duenez, "beste marrazki eta disenua izango dute. Kontzertue- tarako salgai egongo dira".

Folka eta hip-hop, III. Danbakako lehiaketaren berritasunen artean

Dagoeneko estilo askotariko 23 talde aukeratu dituzte

M.B. > BERGARA

Epaimahaiak 23 talde aukeratu ditu. Estilo askotariko musika taldeak dira. Rocka nagusi bada ere, heavya, metala eta popa ere oso presente daude. Baina, berritasunak ere aur-

ki daitezke edizio honetan: folka eta hip-hop jorratzen dutenak ere badaude. Bestalde, gogorarazi oraindik talde bat geratzen dela aukeratzeko. Publikoak aukeratuko du azken talde hori.



ADI HOLDEN

Herria: Bergara.

Taldekideak: Alex Muelak, Arturo Cuevasek, Txarlik eta Ruben Gaunak osatzen dute taldea.

Noiz hasi ziren: 2007. urtean hasi ziren jotzen.

Musika estiloa: Rocka jorratzen dute.

Hizkuntza: Euskaraz abesten du laukote bergararrak.



DAMUDOT

Herria: Mallabia.

Taldekideak: Jonek, Gribik eta Polutok osatzen dute taldea.

Noiz hasi ziren: Zazpi urte daramatzate musika munduan murgilduta; 2001ean sortu zuten Damudot.

Musika estiloa: Heavya.

Hizkuntza: Euskaraz abesten du hirukoteak.



FLIPIN FOLK

Herria: Ermua eta Eibar.

Taldekideak: Iñaki, Jorgek, Aitorrek, Paulinok eta Txemak osatzen dute Flipin Folk taldea.

Noiz hasi ziren: 2001ean sortu zen taldea; oraingo formazioarekin 2006an ekin zioten.

Musika estiloa: Folka eta rocka.

Hizkuntza: Euskara.



ARMY

Herria: Zornotza.

Taldekideak: Javier Domarco, Jon Urriolabeitia, Aritz Mugartegi, Juan Antonio Zorrilla, Juanjo Gil, Gorka Leon eta Unai Zenarruzabeitia.

Noiz hasi ziren: 2006an.

Musika estiloa: Rocka eta hip-hop.

Hizkuntza: Gaztelera.



FOXY BOXXI

Herria: Arrasate.

Taldekideak: Maria Fagan, Aitor Etxagibel, Oier Arregi eta Aitor Moreno.

Noiz hasi ziren: 2005eko bukaeran sortu zen Foxy Boxxi.

Musika estiloa: 70eko hamarkadako rocka jorratzen du.

Hizkuntza: Ingelesez abesten dute.



BARUA BANDA

Herria: Eskoriatza.

Taldekideak: Andoni Bengoa, Gari Kortazar, Iñaki Kortazar eta Andoni Zubia.

Noiz hasi ziren: 2007an sortu zen talde eskoriatzarrak.

Musika estiloa: Rocka jotzen dute.

Hizkuntza: Euskaraz abesten dute.



HILBETE

Herria: Durango.

Taldekideak: Hirukote bizkatarra da Hilbete: Enekok, Asierrek eta Yerayk osatzen dute.

Noiz hasi ziren: Denbora gutxi daramate, aurten sortu dute-eta taldea.

Musika estiloa: Metala da nagusi.

Hizkuntza: Euskaraz abesten dute.



BITTER HONEY

Herria: Arrasate.

Taldekideak: Lau lagunek osatzen dute Bitter Honey: Aitor, Mikel, Borja eta Enaitz.

Noiz hasi ziren: 2007an eratu zen taldea.

Musika estiloa: 70eko hamarkadako rocka da nagusi.

Hizkuntza: Ingelesez abesten dute.



IGOR SAN JUAN

Herria: Aretxabaleta.

Taldekideak: Bakarlaria da Igor San Juan.

Noiz hasi zen: Danbakoko lehiaketan parte hartu izan du aurretik bakarlari aretxabaletarrak.

Musika estiloa: Popa eta rocka ditu nagusi Igor San Juanek.

Hizkuntza: Euskaraz abesten du.



BRANKAN

Herria: Berrioz-Markina.

Taldekideak: Aitor Osa, Igor Larrinaga eta Denis Alberdi.

Noiz hasi ziren: 90eko hamarkada erdialdean hasi ziren, baina 2000. urtean utzi zuten. Orain dela lau urte Denis hartu eta berriro ekin zioten.

Musika estiloa: Rocka.

Hizkuntza: Euskara.



LORD WITCH

Herria: Bergara.

Taldekideak: Eugenio Pelicano, Javi Valverde, Jorge Akarregi eta Iker Narváez.

Noiz hasi ziren: 2004tik dabilta.

Musika estiloa: Heavya jotzen du laukote bergararrak.

Hizkuntza: Abestiak gaztelerez dira.



LOS VIERNES AL RON
Herria: Antzuola.
Taldekideak: Iñigo Irizar.
Noiz hasi zen: Musika munduan esperientzia duen bakarlaria da antzuolarra. Aspalditik dabil.
Musika estiloa: Askotariko estilokoak jorratzen ditu; tartean, folk eta bluesa.
Hizkuntza: Euskarakaz abesten du.



MERY MAY
Herria: Arrasate.
Taldekidea: Taldekide bakarra du taldeak; Maria Fagan bakarriak osatzen du Mery May.
Musika estiloa: Popa eta rocka jorratzen du Maria Faganek.
Hizkuntza: Ingelesa aukeratu du arrasatearrok abesteko.



NI_NEU
Herria: Eibar.
Taldekideak: Horra hor beste bakarlari bat Danbakako lehiaketan parte hartzen; Aitor Sologaistoa da bera.
Noiz hasi zen: 2003an hasi zen ideia horrekin bueltaka.
Musika estiloa: Rocka.
Hizkuntza: Euskarakaz abesten du.



NORMAN
Herria: Eibar eta Ondarroa.
Taldekideak: Gorka Bocos, Beñat, Kepa eta Alex Ariznabarreta.
Noiz hasi ziren: 2007. urtearen bukaeran elkartu ziren.
Musika estiloa: Punka eta rocka.
Hizkuntza: Euskarakaz abesten dute.



ROCK PRIVADO
Herria: Oñatiarrak eta donostiarak dira taldekideak.
Taldekideak: Germanek, Juanek, Rociok, Iñakik, Dafnisek eta Andonik osatzen dute Rock Privado.
Noiz hasi ziren: 2004tik daude aretxabaletarrak musika munduan.
Musika estiloa: Hardcore-metala.
Hizkuntza: Gazteleraez abesten dute.



SCAM
Herria: Aretxabaleta.
Taldekideak: Mikel Cubillo, Imanol Ramos, Paulo Casal eta Ander Romero.
Noiz hasi ziren: 2004tik daude aretxabaletarrak musika munduan.
Musika estiloa: Hardcore-metala.
Hizkuntza: Ingelesa eta euskara.



THE 5 TWISTERS
Herria: Arrasate.
Taldekideak: Jokin, Yagok, Iosek, Gorok eta Benik osatzen dute The 5 Twisters.
Noiz hasi ziren: 2005etik daude musika munduan murgilduta.
Musika estiloa: Garage-rocka.
Hizkuntza: Ingelesez abesten dute.



THE MOTHERFUCKERS
Herria: Arrasate.
Taldekideak: Hodei Beitia, Asier Sala, Asier Uribe-txebarria, Mikel Arriaran eta Jon Alkorta.
Noiz hasi ziren: 2005ean hasi ziren.
Musika estiloa: Punk-rocka jotzen dute arrasatearrek.
Hizkuntza: Ingelesa eta gaztelera.



THE WET BAND
Herria: Mutriku.
Taldekideak: Ainara, Endika, Aitzol eta Iñigo dira taldekideak.
Noiz hasi ziren: Urtebete daramate; 2007an hasi ziren.
Musika estiloa: Rocka da nagusi.
Hizkuntza: Ingelesa eta euskara.



TUESDAY EVENINGS
Herria: Durango.
Taldekideak: Beñat Espinosa, Marcos Agirre, Urko Lekerika, Mikel Urresti eta Iñaki Urresti.
Noiz hasi ziren: 2005etik daude musikaren munduan.
Musika estiloa: Rocka da nagusi.
Hizkuntza: Ingelesez abesten dute.



TURBOSHIT
Herria: Bergara.
Taldekideak: Mikel Gallastegik, Mikel Martínezek eta Iñigo Ibarzabalek osatzen dute.
Noiz hasi ziren: 2007an hasi ziren.
Musika estiloa: Punk-rocka jorratzen du talde bergararrak.
Hizkuntza: Ingelesez abesten dute.



YMOTEK
Herria: Abadiño.
Taldekideak: Durangaldeko David, Javi, Rober, Iban eta Asier dira taldekideak.
Noiz hasi ziren: 2006an sortu zuten taldea.
Musika estiloa: Metalera jorratzen du Abadiñoko taldeak.
Hizkuntza: Ingelesez abesten dute.

gazte zerbitzuak

BEKAK

> Ameriketako Estatu Batuetan.

Fulbright Batzordea. Lektore gisa aritzeko 2009-2010 ikasturtean. Lizentziatu izatea eta ingeles maila ona izatea. Epea: azaroaren 7a.

> Unibertsitatez kanpoko ikasketak.

Eusko Jaurlaritzia; Hezkuntza, Unibertsitate, eta Ikerketa Saila. Unibertsitate mailakoak ez diren ikasleentzat Eusko Jaurlaritzaren 2008/2009 ikasturterako laguntzak.

Epea: urriaren 15a.

> Ikerketa. Tolosako Udala. Ema-kumeek Tolosako historiari egindako ekarpenari buruzko ikerketa-beka. Epea: irailaren 30a.

> Lanbide Hastapena. Eusko Jaurlaritzia; Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila. Lanbide Hasta-peneko Prestakuntza Praktikoaren Fasea (PPF) egiteagatiko diru-lagun-tzak. Epea: urriaren 9a.

IKASTAROAK

> Astialdiko begirale eta zuzendari ikastaroak.

Haurren eta gazteen astialdiko begirale izateko hainbat ikastaro. Informazio gehiago, <http://www.gipuzkoangazte.info> webgunean.

> Erlajazio teknikak Hezkide Eskola. Hezkide Eskolak antolatutako Erlajazio teknikak adineko pertsonentzat ikastaroa. Epea: urriaren 3a.

LEHIAKETAK

> Argazkilarienza. Ostadar Mendi Taldea. Mendi eta Naturako Argazkien IV. Ostadar Lehiaketa. Epea: urriaren 25a.

LANA

> Arkitekto teknikoak. Donostia-Udala. Donostiarra Udalean Arkitekto Teknikoko 8 lanpostu betetzeko deialdia. Epea: urriaren 2a.

> 6 udaltzain. Lasarte-Oriako Udala. Lasarte-Oriako Udalaren 6 Udaltzain -lanpostu betetzeko oposizioa. Epea: urriaren 2a.

> Administrariak. Azkoitiko Udala. Administrarien lan-poltsa Azkoitiko Udalerako. 2. LH edo baliokidea eta 3. hizkuntza-eskakizuna. Epea: urriaren 7a.



ARRASATEKO GAZTE BULEGOA:
Biteri etorbeidea 3 • 943 77 00 65
gaztebullegoa@arrasate-mondragon.net
BERGARAKO GAZTEENDAKO INFORMAZIO GUNEA:
Kultura etxea • 943 77 91 57
gzerbitza@euskalnet.net
ONATIKO GAZTEENDAKO INFORMAZIO GUNEA:
Foruen plaza 4 • 943 71 82 57
gazteinformazioa@oinati.net

astea GOITBn

Astelehena, 29



> Erregional mailako futbola 'Harmailatik' saioan 22:15

Besteak beste erregional mailako Bergara eta BTLS-ren arteko futbol derbia ekarriko du Xabier Urtzelaik Harmailatik kirol saiora.

Martitzena, 30



> Mikel Kazalis musikaria dator 'Ilunpean' saiora 21:45

Mikel Kazalis Zarauzko musikaria etorriko da martitzenean Ilunpean saiora. Anestesia taldeko kide izateagatik da ezaguna Kazalis.

Eguaztena, 1



> Aretxabaletako San Migelak Goiena Telebistan 20:15

Aretxabaletako San Migel jaien gainerako saio berezia egongo da Goiena Telebistan, Amaia Txintxurreta eta Aitor Agirianoren eskutik.

Eguena, 2



> 'Berbaire' saioan, alderdi politikoen ordezkarriak 22:15

Lourdes Idoaga, Manu Egaña, Iñaxio Garro, Juan Karlos Bengoa eta Anjel Bergaretxe izango dira eguneko Berbaire saioan, Goiena Telebistan.

Egubakoitza, 3



> 'Berriak' saioa egunero, Goiena Telebistan 14:45

Egunero eskainiko dute Goiena Telebistan albistegia 19:45ean. Egubakoitzean, baina, eguerdian izango da hori, 14:45ean, hain zuzen ere.

arrasate irratia

FM 107.7

> Maritxu Kajoi eta Danbaka, Arrasate Irratian 10:30

Gainean dago Mari-txu Kajoi, eta gertatzen den guztiaren berri izango duzue asteon Arrasate Irratian. Horrekin batera, Danbaka lehiaketa aurrera doa eta horren berri ere izango duzue Irratian, oraingo astean.

Zapatua

10:00 Asteko gainbegiratua. Eguraldi kontuak Bixente Pagoagaren eskuikit; hirugarren adineko gainekoak (dieta, tertulia...) Zaharrak berri-saioan, eta sexología kontuak, bestea.

Domeka

10:00 Asteko gainbegiratua.

Astelehenetik egubakoitzera
10:00-12:00 Igo Autobusera
Albistegia
Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa)
Ilunpean
Teknoberriak
Igo Euriborrera!
Kantaka
Zaharrak Berri
Astearen errepasoa
Zozketak
Zorion agurak (parte hartzeko):
943 25 05 05
(irratia@goienea.com)
11:55 Arrasateko albisteak, labur.
12:05 Euskadi Irratiko albistegia
12:10 Izarren ordua: abesti ezagunak
13:00 Euskadi Irratiko albistegia.
14:00 Igo Autobusera! (errep.)
17:00, 19:00, 21:00, 23:00
albistegi laburra.

asteko hitzorduak

Jaia




BERGARA

> San Migelen zeruratzearekin bukatuko dira Angiozarko jaiak

Gaur San Miguel Eguna ospatuko dute Angiozarren. 11:00etan, meza izango dute, erretiratuen abesbatzarekin; segidan, luntxa Pagomendin, trikitilariak eta, arratsaldean, puzgarriak. 20:30ean zeruratuko da San Miguel.

Hitzaldia



OÑATI

> Galileo Galileiren inguruan berba egingo du Javier Armentiak egunean

Javier Armentia Iruñeko Planetaryo zuzendaria Galileo, mensajero de las estrellas hitzaldia egingo du, Ilatargi Astronomia Taldeak antolatuta. Eguenean, urriak 2, izango da, kultura etxearen, 19:00etan.

Zinema



ELGETA

> 'Promesas del Este' filma emango dute etzi, eguztiena, Espaloian

Promesas del Este filma emango dute Espaloia antzokian eguztenean, 21:30ean. David Cronenberg-ek zuzendutako film hori Errusiako mafiako kide batetan eta erizain batetan arteko harremanean oinarritzen da.

kuxkuxeroa

Txomin Madina

Nola edo hala, baina komunikatzen

Telekomunikazioen gizarte bizi omen gara. Hori diote behintzat adituek (edo sasiadituek). Tele-rekin edo tele gabe, baina asteburu honetan ikusitakoak ikusita, ados nagoela esan behar.

Egubakoitzak. **Gomiztegi-ko Artzain Eskola**, txinatar kazetari talde baten bisita jaso zuten. Euretako batek hotza zuela eta, ur beroa edo kafea eskatu zuen. Eskututako betetzen ez zela ikusita, sekulakoak esan zizkion lagun bat. Bertan geundenok ez genuen ezertxo ere ulertu, baina tonuagatik, aurpegiagatik,

Komunikatzea hitz egitea bakarrik ez dela erakusten duten hainbat adibide asteburuan

berehala igarri genuen oso gustura ez zegoela.

Komunikatzeko beste adibide batzuk. Zapatuan ehundaka gor elkartu ziren Bergaran. Hitzak, bat bera ere ez. Baina zeinuen hizkuntzari esker, elkarrizketak dozenaka. Edo domekako Oñatioko **Artzain Txakurren Txapelketako** txakur eta artzainen arteko komunikazioa: hamar hitz eskas, baina dena esanda.

Guzti hauek adibide arrunt batzuk dira, baina munduarekin komunikatzeko Internet bakarrik erabiltzen duen pertsona batendako, akaso adibide harrigarriak.

Aholku bat: datozen egunotan, batez ere goizez, ez deitu oñatiarrei. Seguru komunikatzen ematen dizuetela... Gora San Migelak!



ARRASATE
Madi Etxagibel Ruidiaz
Irailaren 22an halako irrifarra ikusita gero eguzkia seguru. Patxo haundi bat senitarte guztien partetik.



OÑATI
Nerea Lertxundi
Irailaren 24an. Zorionak Nerea!! Zure lagun danan partez besarkada ta Patxo erraldoi asko!! Urte bat gehixau baina ez aldatu sekula.



ARETXABAleta
Pello Etxabe Eraña
Irailaren 24an. Zorionak Pello zure lehengusuen partetik, Ibai eta Marentxo! Milaka Patxo zuretzako eta ondo pasa zure eguna! Ostiralean ikusiko gara patxi- tuak emateko!



ARRASATE
Aritz Tornay Belategi
Zorionak zure lehenengo urtebetetzean. Patxo handi bat txapeldun!! Familia osoaren partetik.



ARRASATE
Jokin Ayesa
Irailak 24an, 3 urte. Zorionak familia eta lagun guztien parte!!



ARAMAIO
Leire Vilches Beitia
Irailaren 24an. Zorionak potxola Ainhoa, Uxue, aita- txo eta amatzoren partetik!




ARRASATE
Mertxe Agirreurreta
Irailaren 25ean. Zorionak Amatxo!! Egun ona pasau!!! Patxo potolo asko danimarkatik!!



ARETXABAleta
Izaro Hernandez Urzelai
Irailaren 28an. Zorionak eta muxu haundi bat etxeiko guztien parte!!!



OÑATI
Manex Juaristi Rodriguez
Irailaren 28an. Zorionak pottoli!!! Ondo pasau zure urtebetetze eguna ta merendola goxua preparau, uuumm! Amairu eta Ekhiñe.



ANTZUOLA
Xuban Ganuza Rodriguez
Irailaren 28an, 4 urte. Zorionak eta muxu handi bat aitatto, Antzuolako familia eta lagunen partetik.



OÑATI
Miel Angel Guridi ALTUNA
Irailaren 28an. Zorionak! Patxo mordua familixa danan partetik eta urte askotarako! Egun ona izannnn...



ARRASATE
OIER ABARRATEGI
Irailaren 29an. Zorionak eta patxo haundi bat etxe- en partetik! Ondo ondo pasa.



ANTZUOLA
Mikel Jauregi
Irailaren 29an. Zorionak eta besar- kada haundi haundi etxekoan danon partetik!



ARETXABAleta
Ainhoa Ugarte
Urriaren 1ean, 9 urte. Zorionak eta patxo handi bat etxeoen partetik.

asteburuko albuma



Nikoren eta Maiderren ezkontza. Niko Iriarte eta Maider Aranburu arrasaterak, zapatuan, irailaren 27an, ezkondu ziren Arantzazuko Santutegian, eta ondoren, Zumarragako Etxeberri jatetxean ospatu zuten. Bidaian New Yorkera joango dira. Familiakoek eta lagun guztiek zorionak eman nahi dizkiote bikote ezkonberriari. Baina, ez dira zoriondu nahi dituzten bakarrak. Izen ere, irakaslea da Maider eta bere ikasle guztiek mila zorion eta patxo bidali nahi dizkiote.

Buzkantza ederrak jan dituzte Garagartzan. San Migel jaia ospatu dituzte aste bukaean eta askotariko ekimen izan dira. Tartean, egubakoitzean buzkan- tza ederrak probatzeko aukera izan zuten auzo- etxeen hamarnaka lagunek.

Angiozarren danborradarekin eman zioten hasiera jaiei. Angiozarren ere San Migelak izan dira. Egubakoitzean etxafuegoak eta kanpai jotzearekin hasi zuten eta jarraian, danborrada egin zuten kaleetatik.

OMU KERAMIKAK
zeramika • bainuak
eraikuntzarako materiala

BILTEGIA/BULEGOAK: Meatzerreka 6 • Arrasate • 943 79 14 28 • Faxa.: 943 79 40 43
ERAKUSKETA: Ignacio Zuloaga 4 • Arrasate • 943 79 07 20



zorion agurrak



ARRASATE
Danel Hierro
Zorionak Daneltxo!!!
Irailaren 25ean 6
urte. Patxo handi-
handi bat Idoia eta
Jonen parte!!



ARRASATE
Nerea Kortabarria Isasmendi
Irailaren 26an, urte-
betzea. Zure urte-
betetze egunean
zorionak etxekoan
partetik.




ARRASATE
Beatriz Rangel
Irailaren 26an, 6
urte. Zorionak
Arizmendi Sanvi
Txikiko lagunen
partetik.



ARETXABAleta
Mari Angeles Martin
Irailaren 26an.
Zorionak! Eta patxo
handi bat igandean
elkartuko garen
guztioan partetik!



OÑATI
June Goenaga Guridi
Irailaren 27an.
Zorionak politori!
8 tirakada belarri-
txo horreitatuak eta
patxo haundi haun-
di batzuk familixa
guztian partetik.
Egun paregabe bat



ARETXABAleta
pasa ezazula.
OÑATI
Begoña Gomez
Irailaren 28an.
Zorionak Tia Bego!
Paaaaaaaaaaaaaaaaaaaaaa



Eñaut Zumarraga
Urriaren 3an etxeko
txikiak 2 urte!
patxo haundi bat
Oier, Enara, aitatzox
eta amatxon parte-
tit.



aaa...
OÑATI
Ane Pelayo
Irailaren 28an.
Zorionak eta
patxo haundi-
haundi bat etxe-
ko danon partez.
Alaitz, Eñaut eta
Monika.



ARETXABAleta
Manex Beltran de Heredia
Urriaren 1ean, 6
urte. Zorionak eta
patxo haundi bat
denon partez.
Alaitz, Eñaut eta
Monika.



ELGETA
Ainara Belamendia Elkoro
Irailaren 29an. Zorionak! patxo bero bat
etxekoan partez.



ARRASATE
Eider, Pili, Uhaitz, Eneko, Federico eta Iranzu
Irailaren 30ean. Zorionak Arizmendi Sanvi Txikiko lagunen partetik.



BERGARA
Nerea Aginagalde
Irailaren 30ean, 10
urte. Zorionak etxe-
koan partetik.



ARETXABAleta
Jokin Larrinaga
Irailaren 30ean.
Zorionak printzipi-
to. Ondo ondo pasa
dezazula zure urte-
betetze eguna.
patxo handi bat
aitatxo, amatxo,
Ainhitz eta Jurgiren
partez.



ARRASATE
Izaro Herboso Madina
Irailaren 29an, 2
urte. Zorionak
Izaro familia guz-
tiaren partez.
Patxo ta besarka-
da gigante bat.



ESKORIATZA
Agurtzane Gaintzarin
Urriaren 2an urteak
betedzen ditu.
Dantza ikastaroa
noiz eman behar
diguzu? Lankideak.

jaiotakoak



Marta Belastegi Gomez de Balujera
Antzuola > 3,460 kilo. Irailaren
19an. Gurasoak: Joana (Bergara) eta
Jon (Bergara). Argazkian, umea amarekin.



Elene Diaz Diez
Antzuola > 3,460 kilo. Irailaren
25ean. Gurasoak: Mari Carmen (Ber-
gara) eta Manuel (Bergara). Argaz-
kian, umea amarekin.



Elene Taboada Muruamendaraz
Bergara > 2,030 kilo. Irailaren 22an.
Gurasoak: Naiara (Bergara) eta
Oscar (Bergara). Argazkian, umea
sehaskan papin batekin.



Izar Ugarte Muñoz
Oñati > 3,000 kilo. Irailaren 23an.
Gurasoak: Iñaki (Oñati) eta Gemma
(Oñati). Argazkian, Izar jaioberria
gurasoekin.



Xabier Urzelai Gisasola
Antzuola > 4,200 kilo. Irailaren
25ean. Gurasoak: Josune (Antzu-
ola) eta Jose Luis (Antzuola). Argaz-
kian, umea aitarekin.



Elene Ormaetxea Artola
Arrasate > 3,280 kilo. Irailaren
22an. Gurasoak: Itxaro (Arrasate)
eta Joseba (Arrasate). Argazkian,
umea sehaskan lo.



Lazarraga 4 OÑATI 943 08 23 32

IKUSI
MAKUSI
Umeen
paradisua



Manex Arana Usandizaga
Aretxabaleta > 3,060 kilo. Irailaren
14an. Gurasoak: Ekhí (Aretxaba-
leta) eta Zunbeltz (Aretxabaleta).
Argazkian, amarekin.

Imanol Gallego > Kazetaria

"Zinemaldiko agenda betetzea ez da erraza"

EDU MENDIBIL > BERGARA

Azken egunak, nasusiki, ilunpean eman ditu, Donostiako zinema aretoetan. Zapatuan amaitutako Zinemaldian kazetari lanetan jardun du Imanol Gallego arrasatearrak. Atzo, goizeangoiz, itzuli zen Madrilera, aspaldian han dabil-eta.

Konforme epaimahaiak Zinemaldian hartutako erabakirekin?

Bai, espero zitekeen erabaki hori... Polemika beti egoten da kritikarien partetik. Nire fabritoa Urrezko Maskorra irabazteko *Laila's birthday* zen, baina *Pandora's box* palmareserako film duina dela uste dut.

Eta interpretazio sariak?

Tsilla Cheltonena izan da agian sorpresarik handiena; Melissa Leo faboritoen artean zegoen *Frozen river*-en lan ikarraria egiten duelako. Biek saria izatea ondo dago. Gizonezkoean, Oscar Martinez argentinarra baino Ulrich Thomsen sarituko nuke. Baino aurretik irabazia du Donostian Thomsenek eta gehiezkhoa litzateke bigarren hau...

Ilunpean eman dituzu azken egunak. Aukera zabala da egunotan Donostian zinemazaleentzat...

Bai, lehenbiziko egunean sekulako gogoarekin egoten naiz eta badira lau film ikusten ditu eta egunak. Azkenerako, berriz, nekatuta iristen naiz baina pena izaten dut Miramar jauregiko amaierako jaien. Orain urtebe te itxaron behar...

Lo kuluxkarik bota duzu ema naldiren batean?

Ezetz esango nuke...

TEST-A

Herria: Arrasate. **Adina:** 24 urte.

Ikasketak: Kazetaritza. **Zaletasunak:** Zinema, bidaiatzea, lagunekin egotea. **Film bat?** *Buda explotó por vergüenza* edo *Mamma mia*, zergatik ez? **Musika talde bat?** Franz Ferdinand. **Liburubat?** *Jack Lemmon nunca cenó aquí*, Diego Galanena. **Zein filmetako protagonista izango zinatke?** *La historia interminable*. **Parrandarako tokibat?** Donostia. **Amets bat?** Canne sera joatea ondo lego...

Negarrik, filmeren batekin?

Bai, *Pandora's box* sariduna-rekin, adibidez.

Barre, zeinekin?

Louise-Michel frantziarraren kin. Kritikoek egurtu duten arren, gustura egin nuen barre.

Meryl Streep izan da izar nagusiako bat. Gertutik zelakoa da?

Gertu 3 metro da? Gehiago ezin izan nuen hurbildu baina oso sinpatika egon zen agurtu zuen jendearekin.

Azken urteotan ez duzu Zinemaldian hutsik egin. Zein da Zinemaldiko berezitasuna?

Urteroko lagunekin elkarteko aitzaki ezin hobea da, zinemazegozatzeko, ederto jan eta afaltzeko... Txarrenra norbera antolatzea izaten da, eta agenda betetzea, erritmoa zoratzeko delako. Hara eta hona egun guztian.

Asko saltseatu duzu jaietan eta horrelakoetan?

Utzi nauten beste... Denetarako denbora utzi behar da.



ZINEMALDIAN Imanol Gallego Mikel Olaziregirekin, zapatuan Miramar jauregian.

ai, ene!



Hartza dantzan

San Migel jaiak direla-eta, Aretxabaleta aldean dantza batean ibili dira asteburuan, eta gaur Oñatin hartuko dute errelebua. Ikusteko dago erretrotako hartzak bihamamuna duen, edo Oñatin ere dantzan jarraituko duen.

<http://www.yupifotos.com>

biharamuna

Marijo Deogracias

Agur Paul, datorrela Maritxu


Itzali dira Zinemaldiko fokoak, Mikel Intxaustik Gara-n zioenez, ez polemika gutxirekin gainera! "Atzera ere epai-mahai kideek ez zituzten kritikoek eta publikoak kinieletarako aukeratutako filmak kontuan hartu". Itzali dira baita ere begi urdinak. Berria-ko Aitor Abaroa kazetariari lapurtutako izenburuari nire ekarpenea egin, "itzali dira zinearen historiako begi urdin ederrenak". Agur Newman jauna.

Beti gertatzen da, onena amaitzen da eta txarrenarekin ez dago amaitzerik. Gure herriak asko daki horretaz. Txarra da inora heltzeko balio ez duten eztabaidean murgilteza. Barikuau esaterako, halaxe aritu ziren Ibarretxe, Lopez, Barreda,

Egibar, Errauskin, Ziarreta, Matute eta Ezenarro; gero, jakina, denak gustura zeudela esan arren. Oscar Rodriguez sozialistak, esaterako, "ez da nire jefea delako, baina Patxi oso ondo egon da" bota zigun legebiltzarreko plenoaren ostean. Lopezek birritan esan zuen "lehendakari" izango dela. Sinistuta dabil gizona. Urkulluk, Ibarretxeren aldeko apustua egin zuen atzo; txutxumutxuak isiltzeko-edo. Ibarretxek "azken 30 urtetan lideratu dugu herri hau eta horretan jarraituko dugu" erantzun zion. Ikusteko dago.

Ze, martxoa iritsiko da, baina barikuau Maritxu Kajoi agertuko da Mondragoen miraria egitera. Hari eskatu behar benetako miraria.

eguraldia



MAXIMO

+22

MINIMO

+7

San Migel egunaren inguruaren udako eguraldia izango dugu. Giro egonkorra nagusituko da, goiz freskoarekin.

www.euskalmet.net

Euskal soinu eta irudiak zure eskura!

ABESTIEN POLIFONIKOAK (2 sms)
Abestien izena (Abeslaria) | **KODEA**

Pop-Rock
Aitormena (Hertzainak) | **AITORMENA**
Aizkolari (Kortatu) | **AIZKO**
Amore amore (Karidakode benta) | **AMORE**
Askatasun egarri (Lin Ton Taun) | **ASKATA**
Begiak otertua (Lin Ton Taun) | **BEGIAK**
Bi Minutuero (Hertzainak) | **BIMINU**
Dub manifest (Fernan Muguruzak) | **DUB**
Egunero (Hertzainak) | **EGUNERO**
EH-Sukarri (EH Sukarrak) | **SUKAR**
Elos dizen miera, nosotros amén (La Polla) | **ELLOS**
Enamorado de la muerte (RIP) | **ENAMO**
Entzuidazu (Aterking's) | **ENTZU**
Etorkizuna (Etsaiak) | **ETORKI**
Ezer ez da betiko (Ken) | **EZER**
Gora Herna (Negu Gorra) | **GOR**

SOINUAK: Bidali, GIPE hutsunea
ABESTIAK: Bidali, GIPP hutsunea
LOGOAK: Bidali, GIPL hutsunea
JOKOAK: Bidali, GIPJ hutsunea

5767
zenbakira

SMS bakotzeko:
1,2 € + BEZA

WEBGUNEAN → www.smsoinu.com

LOGOAK (2 sms)
KODEA

ZINEMA	AIZKORAK
GLOBUAK	EGUZKIORE3
NIREKIN	SORGINGA

OHARRAK
1. BATERAGARITASUNA: Begiratu zure poltsikoko telefonoa bateragarrirria den eskanetan ditugun produktuekin, helbide honetan: www.smsoinu.com/bateragari
Bertan hasiko duzu beharrezko duzen informazio guztia.
2. BALDINTZAK: Edukak eskuratzeko, beharrezko da GPS sistema aktibatuta izatea, GPS sistema aktibatzeareko, jar zaitez zuen hornitzalearekin harenmanetan. Alia ematea doan da eta K3 jaitseria bakarrik orbaide beharko duzu. Kasu guztietan deia eta GPS sistemaren alia ematea doan dira.
* Euskalibide: 900 94 02 00 telefonoa, / Vodafone: deitu 123 m. * Movistar: deitu 603 ra.
3. ZALANTZAK: Edozien zalaritzak duzula, jarri gurekin kontaktuan: smsoinu@smsoinu.com / edo deitu 902 01 21 40 telefonoa.
4. PERSONALIZazioK: Zure neurria egin ditzakegi abesti eta logoak. Webgune honetan kalerau eta arabitzaileek eskura dezakete nahiz baduzu, jarri gurekin harenmanetan eta deitu 902 01 21 48 telefonoa.